



ANTONIO ZAVALA

# Jaioak bizi nai

10647  
GAS-128/19



# JAIOAK BIZI NAI

1975

---

**COLECCION AUSPOA**

**Plaza de Santa María, 2 — Teléfono 67 12 82 — Tolosa  
(Guipúzcoa)**

**ANTONIO ZAVALA** INTRODUCCIÓN DEL AUTOR  
El autor de este libro es un economista  
que ha trabajado en el extranjero durante  
muchos años y ha adquirido una gran experiencia  
en el campo de la economía.

# JAI OAK BIZI NAI

**AUSPOA LIBURUTEGIA**

1979

Azaleko marrazkia, onako liburu ontatik artua:

Juan Mañe y Flaquer:

«El Oasis. Viaje al país de los fueros».

Tolosa'kñ azoka-eguna dala adierazten du.

© Auspoa Liburutegia-Tolosa (Guipúzcoa)

Inprimatzaille: IZARRA - Polígono 36 - Usúrbil (Guip.)

Depósito Legal: S. S. 178/79

I. S. B. N. 84 - 7158 - 063 - 2

Abril - 1979

## ARKIBIDEA

Itzaurrea ... ..	9
(1854) Frantzes mineruanak Illarramendi'ko bozean ... ..	12
(1858) Labe berriyari ... ..	23
Bertso berriak zortziko soñuan jarriak ... ..	30
(1858) Burni-bideen asierari jarritako kantak	38
Zortzikoa Donostiarrak kantatu dutena Ifar aldeko gurdabide burnizkoari otsandiro asiera ematean Donostia'k Garagar illaren 22'an 1858'en urtean ... ..	44
(1863) Bertso berriak: "Bapore orren ka- soak..." ... ..	49
Bertso berriak: "Bertso berriyak jarri biaituz burnizko bide oienak..." ... ..	55
"Artoa erosi bearra..." ... ..	61
(1864) Bertso berriak: "Nere biotza dago pesalunbratua..." ... ..	65
(1867) Bertso berriak: "Gure kontuak dira sobra itsusiyak..." ... ..	73
Bertso berriak: "Zorioneko gure ezkondu bearra..." ... ..	80
Bertso berriak: "Kantatutzeroa nua ejemplo bat ona..." ... ..	94
Bertso berriak: "Aurten izan da sobra eudi ta arriya..." ... ..	101
Bertso berriak: Pobrien bizi-modua nola dan	106
(1890) Bertso berriak D. U. jarriak ... ..	113
Bertso berriak: "Jornaleroen bertsoak" ... ..	122
(1891) Bertso berriak: "Dama batzuek eken- tzen dira igande-arratsaldetan..." ... ..	128
Bertso berriak Franzisko Perez'ek jarriak ...	134

## ITZAURREA

«Jai oak bizi nai» ezarri diogu izenburua liburu oni. Baiñan izenburu ori ez du eraskiña; bere erraietatik sortua baizik. Guk asma-tua ez; liburuaren bertso batetik artua dala esan nai degu.

Irakurri bezin laister, esaera mamitsua ta egokia iduritu zitzaigun. Bizi nai ori, gizonaren barrengo indar nagusia da noski. Orrek bultzatzen du lanera.

Baiñan lana ez-ezik, burruka ere bada ori; eguneroko burruka latza. Ta indar ori ez bagendu, ez giñake ortarako gauza. Etsitzen eta menderatzen errezak izango giñake danok ere. Bibliak onela esaten du: «Gerra utsa da gizonaren lurreko bizitza guzia» (1).

Indar ori, beste moduz adieraziko dute jakintsuak, psikologoak; gure erriko bertsolari ez-ezagun batek iru itz erabilli ditu orretarako. Ez dago geiago esaterik itz gutxiagotan.

Liburu ontako bertsoak, bizi nai ori azaltzen digute. Alegia, bizimodua ateratzearren gi-

---

(1) Job 7, 1. Or goien ezarri degun itzulpena, Asteasu'ko Juan Bautista Agirre'rena da.



zonak egiten dituan lanak, saioak, ekiñaldiak, indarketak...

Bizi nai orrek zer ikusirik asko du gizarte-  
auziarekin. Adiskide bat baiño geiago, lan-  
gilleen bertsoak, sozial bertsoak argitaratzeko  
ta argitaratzeko ari zitzaizkidan joan dan aspal-  
dian. Ara bada, adiskide oiek nai ordurako ez  
bada ere, bertso oietatik mordoska bat.

Liburu au, XIX'garren mendeko bertsoak  
osatu dute; XX'garrengoak beste aldi baterako  
utzi ditugu.

Lau ogibide ere, beste baterako gelditu dira:  
nekazaria, artzaia, arrantzalea eta indianoa. Oie-  
tako bakoitzak, liburu bana betetzeko ainbat  
bertso badu.

Liburu ontako bertsoetan ageri danez, ga-  
rai artako langilleak, bakoitzak al zuan bezela  
eta bakardadean ematen zion arpegi bizitzari.  
Bizi bearraren burruka, bakarrik egiten zuan ba-  
koitzak.

Langilleak artean etzekiten, beren eskubi-  
deak zaintzearren eta bizimodua errezago ate-  
ratzearren, alkarrengana biltzen. Geroago ikasi  
zuten ori; mende onen asieran edo or nunbait.

Baiñan ori ikastearekin bat, beren bizimo-  
dua ez-ezik, bertsoak ere asko aldatu zituzten.  
XX'garrengo bertsoak ateratakoan ikusiko da  
ongien aldaketa ori.

Liburu ontako bertsoen garaian, oso gertae-  
ra berezia ezagutu zan: trenaren agerpena. Gure  
aurrekoak oso ondo jabetu ziran aurrerapen

orren garrantziaz. Lau bertso-sail badira emen gai orrezaz, eta ala ageri da oietan.

Orain baiño leen ere, bertsorik asko argitaratu izan du Auspoa'k langilleai buruz: Xenpelar, Txirrita, Gezaltza'ko Graziano, Zabaleta anaiak, Alzo'ko Imaz, Urrutia, Lexo, Zubizarreta, Iturzaeta, Mendaro Txirristaka eta beste bertsolari askok, nork bere denborako langille jendearen kezka eta estuasunak ederki adierazten dizkigute.

Oraingo ontan, berriz, bertsolari ez-ezagunak itzegingo digute. Gai ori bera ikuitzen duten bertsoak alegia, baiñan egillearen izenik ageri ez dutenak.

Umore-bertsoak badira auetan ere. Geienak, ordea, samiñak eta garratzak dira. Izan ere, emengo eta edonungo jende xumea ez al da beti orrela bizi izan?

Mundu onetan gizonak gizona lenengoz zapaldu zuanean, onela esan zion Jaungoikoak zapaltzaleari: «Zer egin dezu? Zure anaiaren odola lurretik deadarrez dagokit!» (2). Liburu ontako bertsoak, geroztik onera deadar ori ixildu ez dala adierazten digute.

Etxe askorengatik esan genezake, Xalbadorrek beste gai bati buruz bertso batean diona:

Zerua, entzun zazu gur'etxeko auhena,  
amaren nigarra ta aitaren hasperena...!

---

(2) Franzisko Inazio Lardizabal: «Testamentu zarreko eta berriko kondaira», Tolosa n, 1855, Andres Gorosabel Liburugillearen etxean.

(1854)

**FRANTZES MINERUANAK  
ILLARRAMENDI'KO BOZEAN**

Amazazpi bertso auk, Tolosa'ko Fakundo Adurriaga *Besamotza* zanaren bildumatik artuak ditugu.

Izenburua, or goien idatzi bezela dago bilduma ortan ere. Baiñan ez degu garbi irakurtzen, *Illarramendi'ko* edo *Illurramendi'ko* esaten duan. *Illarramendi*, Tolosa'tik Alegi'rako bidean dagoan toki bat da. *Illurramendi*, berriz, *Yurramendi*'ren aldaketa bat izan diteke, eta oti, gaur Erruki-etxea dagoan mendixkaren izena da. Biak, beraz, Tolosa'ko toki-izenak.

Oar orrek, bi gauza adierazten dizkigu: bata, zaarragoko beste bertso batzuk bazirala, *Illarramendi* edo *Illurramendi* orrekin zer ikusirik zutenak; bestea, oso bertso ezagunak zirala garai artan, Tolosa'n beintzat.

*Illarramendi* toki-izena aitatzen duanik, bertso bakarra eskuetaratu degu orain artean. Errenteria'ko *Illarramendi*, ordea; ez Tolosa'koa. Ikus: *Xenpelar bertsolaria* liburua, *Auspoa* 88-89-90, 237 orri-aldean.

Eta bertso-mota berdiña gaurko sail ontan

eta beste orretan. Eta biak ere toki berean arkituak: Tolosa'ko Adurriaga'ren bilduman.

Bertso-mota ori Xenpelarren *Aizak i motell mañontzi* edo mutilzarrai jarritako bertsoena baita, doñu oietan kanta ditezke bertso auek. *Auspoa*'ren 88-89-90'garrenean, 151 eta 341 orri-aldeetan arkituko ditu irakurleak.

Bertso auek esaten digutenez, frantzes batzuek «aien aitonak gorde zituzten diru aien galdez» etorri ziran Tolosa'ra.

Zer diru ziran oiek? Guri, bertsoak irakurrita, auxe bururatu zitzaigun: Kondairak esaten duanez, frantzestea deritzaion gerraren bukaeran, frantzesak, emendik iges egiterakoan, gurdi asko zeramazkiten España'n barrena lapurtutako aberastasunez kargatuta. Baiñan Gazteiz'en, 1813.VI.21'an, egurra jaso zuten eta ondasun oietako asko bertan utzi bear izan zituzten, eta beste batzuek, Frantzi'ra baiño leen bidean gorde.

Ona nola esaten dan *El Empecinado visto por un inglés* liburuan (1):

«...pocos ejércitos habrán hecho uso tan amplio del privilegio del saqueo y el pillaje que tiene todo invasor, como los que Napoleón envió a España durante la guerra

---

(1) Liburu ori, iñork emengo erderaz nai badu, *Colección Austral* sortaren 360 zenbakian arkituko du. Baiñan Ingalterra'n 1846 urtean argitaratu zan, izenburu onekin: *Peninsular Scenes and Sketches, by the author or «The Student of Salamanca»*.

de la independencia. Sin embargo, les sucedió en muchas ocasiones que el enemigo volvía a apoderarse de su presa o que ellos mismos tenían que abandonar el botín, demasiado voluminoso a veces, en tiempos de marchas rápidas o de precipitadas huidas. Y entonces no era raro ver que los soldados franceses enterraban sus tesoros al pie de un grupo de árboles, de una gran piedra o de cualquier otro accidente del terreno que pudiera servirles de señal para recobrarlo más adelante. Durante la batalla de Vitoria, que tan desastrosa fue para los franceses, ocurrió esto con mucha frecuencia, confiándose innumerables tesoros a la fértil llanura alavesa. Sobrevino la desbandada francesa hacia Pamplona y la frontera, y no hubo tiempo de recuperar lo enterrado. Pero cuando Napoleón fue aniquilado y la paz reinó de nuevo en Europa, más de un curtido veterano repasó los Pirineos, convertido en buscador de tesoros. Muchas veces, las pesquisas eran infructuosas, porque las señales habían desaparecido o el arado o el agua de las torrenteras habían puesto el tesoro a disposición de un labrador o de un caminante. Pero no siempre ocurrió esto, naturalmente, y los aldeanos vascos fueron, en muchas ocasiones, testigos asombrados y envidiosos del desenterramiento de tesoros compuestos de toda clase de objetos de valor y de monedas: desde los macizos candelabros de plata robados al altar, hasta los pendientes y los broches de señoras; desde la pesada onza, hasta esos duritos diminutos, que

*son como encantadoras miniaturas de los reyes de España, mucho más agradables que el basto dólar de plata».*

Tolosa'ko diru oiek ere, oietakoak izango ziran seguru aski.

*Plano* ta guzi etorri ziran, bertsolariak dienez, frantzes oiek. Lenengo, San Frantzisko komentuarien parean, bi zulo egin zituzten. Irujarrena, Justizia'ko plazan. Laugarrena, berri, «aizkolariaren» etxeko parean. Aizkolariaren etxea, Rondilla kalearen bukaeran eta *Triángulo* esaten zaion plazaren aurrean dagoan etxe bati deitzen omen zioten.

Artan ari zirala, bi katalan agertu ziran, «aien planua ohea zala»-ta. Baiñan arekin ere probetxurik ez.

Urrengo zuloa, pelota-jokuan. Azkenerako, ura eta arkaitz bizia besterik arkitu ez eta gastatuak zor utzita iges egin zuten frantzes oiek. Bertsolariak ala dio beintzat.

Damurik, ez dakigu nor izan zan bertso auek jarri zituan bertsolari ori. Zulogintzan ari ziralako, *mineruak* esaten die frantzesai.

Bertso auek oiñarri arturik, artikulo bat agertu genduan orain urte batzuk, 1967.VI.7'an, *El Diario Vasco* egunerokoan. Andik iru egunera, periodiko berean, Tolosa'ko berri-emale dan Goñi adiskideak, gai orri buruz argibide berria eman zuan. *Arriz* izengoitiaz firmatzen zuan batek, oar bat bialia zion, beste gauza batzuren artean onela esanaz:

«Voy a copiar un párrafo de un registro de actas del 21 de Junio del año 1854 (Paseos y árboles, libro núm. 1, sección 0, negociado núm. 9. Archivo de la Villa): «Concesión de un permiso del Gobierno Civil al alcalde de Tolosa para hacer un reconocimiento en el Prado pequeño, en presencia del delegado de Hacienda, con objeto de buscar un tesoro enterrado durante la guerra de la Independencia.

*Nada se sabe de su resultado».*

Erriko-etxeko agiriak, Zumardi Txikia aita-tzen du; bertsolariak, berriz, beste zenbait toki. Zeñek arrazoi? Bertsolariak, berak ikusi edo bestek esan ziotena jarriko zuan bertsoetan. Agiriak berriz, toki bakarra izendatzen du; bai-ñan beste iñon saiatu etzerala esaten al da orre-kin? Alegia, bestetan ere saia zitezkean fran-tzesak agiritan ezer geiago jarri gabe ere.

Edozein moduz, urtea ematen digu agiri orrek eta bertsolariak diona ere egiztatu egi-ten du.

Geroztik iñork atera ez badu beintzat, To-losa'n badago, beraz, eguzkirik ikusi gabe, as-koren begia diz-diz jarriko lukean zerbait...

- 1/ Tolosa'ko mina gaizuak  
ez dira izan gozuak,  
orain kaskuai atzegiteko  
badira moduak;  
neri eman dit goguak  
ipinitzeko bertsuak,  
asko gustatu zaizkidalako  
frantzesen txaskuak.
  
- 2/ Frantzes oriek afanez  
etorri ziran egunez,  
aien aitonak gorde zituzten  
diru aien galdez;  
pensamentubak aldrebes,  
plano zuzenik ere ez;  
ia ito nintzan oidi begira  
ni beñepein farrez.
  
- 3/ Persona batzuek pozak  
alegraturik biotzak,  
aiek beteko zizkatelako  
ontzako urrez polsak;  
ez duro eta ez ontza,  
ori zan frantzesen boza,  
lenago ojala joan baziran  
emendik aruntza!



4/ Asi ziraden lanian  
San Frantzisko'ren parian,  
jendia franko antxe zeguan  
diru-usayian;  
frantzesak beren artian:  
«Zaute, zaute pakian!  
Aldegingo diau etxekoandrian  
olluak jatian!»

5/ Zulo bat egin lenbizi,  
gero bigarrena asi,  
diruai deitzen zioten bañan  
errespuesta gutxi;  
nunbait etziran an bizi,  
edo juan ziran igasi,  
kuartotxo baten baliorikan  
ez gendun ikusi.

6/ Berriz ere esperantzan  
Justizia'ko plazan,  
nik uste gabe zulo aundi bat  
antxen azaldu zan;  
begira jarri nintzan  
dirurik agiri ote zan,  
beste bi aien paraderuan  
antxen gelditu zan.

7/ Zebiltzan gora eta bera,  
gero Rondilla kalera,  
aizkolariaren etxe (2)  
pare-parera;  
Katalunia'tik onera  
beste bi gizon ostera,  
aien planua obia zala  
erakustera.

8/ Minatu zuten gogotik  
katalan aien planotik,  
ura eta lurra besterik etzan  
ikusten gañetik;  
tristetu ziran bertatik  
atzetik eta aurretik,  
katalan aiek azkar aldegin  
zuten Tolosa'tik.

9/ Gero pelota-jokura  
juan zan frantzes kuadrilla ura,  
jende guziak egiten zioten  
atzetikan burla;  
zulatu dute lur ura,  
ez dakit zenbat modura,  
billatu zuten arkaitz biziya  
eta gañera ura.

---

(2) Adurriaga'ren kuadernoan alaxe dago; bañan,  
dudarik gabe, zerbait falta da emen.

10/ Ura atera ta ura sortu,  
gau eta egun segitu,  
diruak aitu ziradenian  
lanak añaditu;  
langilliak ere kejatu  
ezin zutela kobratu,  
orduan beintzat ala ziraten  
neroni kontatu.

11/ Zelebria zan epoka:  
arkaitz biziyai tiroka,  
jendia berriz aldamenetik  
frantzesai burlaka;  
aiek guztiak abanta  
erriaz puru galanta,  
lau egun baña gutxiaguan  
emendik eskapa.

12/ Rikardo Ormaetxea,  
akordatutzen bazera,  
berrogei ta bi errial aundi  
artzekotan zera;  
onegiya izan zera,  
ikasiko dezu zartzera,  
obe zenduke joan baziña  
pelotak eitera.

13/ Pegoi bat bazan fijua  
eta guztiz txistosua,  
artxeak aguro kobratu zuen  
bere artzekua;  
izanik gorputz flakua  
eta begi batekua,  
mingaña berriz erritarako  
paregabekua.

14/ Berrogei ta zazpi duro aundi  
etxeoandre onraduari,  
ia frantzesak egin ziguten  
jan eta eran ongi;  
beste andre alargun bateri,  
esateko ez dakit garbi,  
ark ere artzeko izan biar du  
artzekua ugari.

15/ Ojalateruari ere  
bonba kendua debalde,  
zergatikan gelditu ziran  
dirurikan gabe;  
lotsik etzuten batere,  
batek zirurin errege,  
uste etzutela egin ziraden  
gauza askoren jabe.

16/ Orko injenieruak  
txit izan ziran beruak,  
postura orretan arraskatutzen  
ogeika duruak;  
orain dira apuruak,  
pena du galdutakuak,  
erremediatu ditzala danak  
gure Jaungoikuak.

17/ Guztiz dalako *al caso*  
orra amazapi bertso,  
ermandadekua ez danak ez  
kandelarik jaso;  
aiek jua ziran garboso,  
janik zenbait pizti gozo;  
libra zituzten ixkin oietan  
len zeudenak preso.

---

Oker zeudelakoan, edo-ta neurria konpontzearren,  
an eta emen zuzendu egin ditugu bertso-lerro batzuk.  
Onela zeuden: 2/1: Frantzes oiek afanez; 3/1: Persona  
batzuek pozaz; 4/3: jendi franko antxe zeguan; 4/7:  
aldegingo diau etxeoandriaren; 5/3: diruari deitzen  
zioten; 5/4: bañan errespuesta gutxi; 9/8: eta gañera  
uda; 10/1: Ura atera ta uda sortu; 11/2: arkaitz bi-  
ziyari tiroka; 12/8: pelotak egitera; 13/3: antxen  
aguro kobratu zuen; 14/3: iya frantzesak egin zi-  
guten; 14/6: esateko ez dakit ori garbi; 16/7: erre-  
mediatu ditzala; 16/8: danak Jaungoikuak; 17/3: er-  
mandadekua ez danak; 17/4: eskandalorikan jaso.

(1858)  
**LABE BERRIYARI**

Amasei bertso auek, Donostia'ko Jose Manterola zanaren bildumatik artuak ditugu. Bertso-paper batean daude, izenburu orrekin bera-ekin eta moldiztegi-izen onekin: «DONOSTIAN: Pio Baroja-ren moldizteguian - 1858».

Labe berri ori dala-ta, ogia asko merkatu da: erdiraiño jetxi da, amaikagarren bertsoak esaten duanez beintzat. Ta «pobre guziyak pozez», «fandanguan dabilta danboliña arturik».

Ta «makin au egin duten persona onraduai» erriaren esker ona erakustearren, bere izena izkutatzen duan bertsolari onek bertso auek paratzen ditu.

Bilintxek ogei ta zazpi urte zituan orduan. Baiñan ez du ematen, bertso auek aren maillara irixten diranik.

Beste bertso-jartzallerik bazan garai artan Donostia'n eta aietako batek jarriak izango dira.

1/ Orra bertso batzuek  
labe berriyari,  
konsueloz beterik  
diyozkagu jarri,  
pobre guziyak pozez  
esanaz alkarri,  
Jaungoikoak zerutik  
digula ekarri.

2/ Mingañian baneuka  
abillidadia,  
alabatuko nuke  
orlako labia;  
oraindikan obeto  
beraren jabia,  
zergatik jarri digun  
merke laboria.

3/ Inkomodatu gabe  
biagu kantatu,  
iñor asarratzerik  
eztegu pensatu;  
ogiya preziyuan  
asko da bajatu,  
orlako indiyantorik  
etzaigu agertu.

- 4/ Pobre gaxuarentzat  
orlako alderdirik,  
jaio nintzan ezker  
eztet ikusi nik;  
lengo urte oietan  
danak penaturik,  
ogi gareistikuak  
ezin pagaturik.
- 5/ Berrogei ta amar kuarto  
sei librako ogiya,  
pagatu degula ezta  
denbora aundiya;  
etxian izan ezker  
zerbait familiya,  
egun artan igual  
aitzen zan guziya.
- 6/ Merkatzeko esan arren  
agintzen zubenak,  
batere baliyo ez,  
abek ziran penak;  
asko padezitu du  
orain bizi danak,  
ezin uka lezake  
ikusi dubenak.



7/ Eztiyot desiatzen  
nik iñori gaitzik,  
gure labe eder au  
onratzia baizik;  
merkatu zaigunian  
emen gaude pozik,  
eztago eramaterik  
eskuba aora utsik.

8/ Ogiya merkatuta  
esnia ardipana, (1)  
kontentu balegoke  
orain bizi dana;  
esperantza iduki  
Jaungoikoagana,  
kariñua badauka  
beti guregana.

9/ Abundantzi aundiyen  
Jaungoikoak aurten,  
beriak gaitu eta  
eman digu jaten;  
batzuben keja dira  
ez dutela saltzen,  
orain irabazteko  
len etzuten galtzen.

---

(1) Ardipana = ardit bana.

- 10/ Alde erriyetan ere  
guztiyak pozturik,  
fandanguan dabilta  
danboliña arturik:  
ogitan ez dutela  
kuasikan gasturik,  
farraz itotzen daude  
ortzak agerturik.
- 11/ Lau kuarto t'erdirekin  
librako ogiya,  
ez deritzat nik dala  
preziyo aundiya;  
kantidade orrekin  
len nuben erdiya,  
pobre tristiarentzat  
ai zer alderdiya.
- 12/ Labi ori ez balitz  
beñere ausiko,  
gastubaren erdiyan  
giñake biziko;  
geiago garestitzen  
ez liyoke utziko,  
bestela zortzi kuartuan  
bigar edo etziko.

13/ Makina armatu duben  
kuadrilla orrengatik,  
erregutu lezake  
pobriak bertatik,  
arren libra ditezen  
gaitz guztietatik;  
merkatu digute ta  
jan zangun gogotik.

14/ Ogiyaren prezioaz  
kontentu naiz agitz,  
obe genduben len ere  
orla izan balitz;  
jakiyaren desioa  
egiten zat berriz,  
ojala aragiya ere  
merkatuko balitz.

15/ Asto batek badakar  
guk jan ala ogi,  
karruarekin juanta  
kargatuta korri;  
erregutu zaiogun  
San Antoniyori,  
osasuna emateko  
mundu guztiyari.

16/ Makin au egin duten  
persona onraduak,  
ezin paga lezake  
gu bezelakuak;  
zeruban sar ditzala  
arren Jaungoikuak,  
orra amasei bertso  
txanpon banakuak.

## BERTSO BERRIAK

### ZORTZIKO SOÑUAN JARRIAK

Emezortzi bertso oraingo ontan. Bonaparte'ren bilduman dagoan bertso-paper batetik ditugu. Moldiztegi-izena onela du: *Donostian, Pio Barojaren moldizteguian*.

Goizueta'ko alaba batek «Irun'go errian bi soñ josten daukatzi joan dan aspaldian». Baiñan Maria izeneko batek, Madrilla *malan* bialtzen ditu.

*Mala*, aleman izkuntzatik datorren itza omen da. Frantzesez *malle*, zurezko kutxa. Emengo erderaz ere, ortik sortua dute *maleta*.

Baiñan ortik-edo etorrita, beste esan-nairik ere bazuan itz orrek. Onela dio E. Littré'k bere *Dictionnaire de la langue française* (Paris, 1885) iztegian:

«Malle-poste, ou simplement, malle, voiture par laquelle l'administration des postes envoie les lettres au bureaux d'administration et dans laquelle on reçoit quelques voyageurs».

Alegia, korreoa eramán ez-zezík, biderako zenbait lagun ere artzen zituan gurdia; zalgurdia noski bertso auen garaian. Ain zuzen, 12'ga-

rrenean *postillona* aitatzen zaigu. Zaldi-zaia alegia.

Madoz'en iztegian onela esaten da Irun'go erriaz mintzatzean:

«Correos y diligencias: *la mala correo llega de Bayona á las 3 de la tarde y sale á las 6 de la misma: de Madrid llega de 4 á 5 de la mañana y sale á las 6 de la misma para Bayona directamente. También llegan todos los días las diligencias procedentes de Madrid y Bayona*» (1).

Ta Tolosa'ko erriaz ari danean, berriz, *mala* ori andik barrena, Madrid eta Frantzia aldera ez-ezik, Aragoi, Kataluña, Naparroa eta Bilbo aldera ere igarotzen dala esaten digu.

Joan-etorriak orrela egiten ziran garai artan. Trena baiño leenagoko kontua degu noski.

17'garren bertsoan, *nonbria* itza agertzen da: «Aurrari eman bezaio beraren nonbria». Nonbria, abizenari esaten zioten orduan.

Zortzigarrenean, leen aitaturako Maria orrenгатik «kantak paratzen ere ibilli da benaz» esaten da. Damurik, ez degu beste kanta oien aztarrenik iñon ere arkitu.

---

(1) Pascual Madoz: «*Diccionario geográfico-estadístico-histórico de España y sus posesiones de ultramar*», Tomo IX, Madrid 1847.

1/ Bertso berri batzubek  
nai nituke para,  
aditu nai dubenik (2)  
iñor ere bada;  
Mariak galdutako  
arroparen kausa da,  
berriz egin dezaten  
bigarren pasada.

2/ Goizueta'ko alabak  
Irun'go errian  
bi soñ josten daukatzi  
juan dan aspaldian;  
noiz prebenitzen diran  
Maria guardian,  
malan bialdu ditu  
bere errabian.

3/ Klaro esango ditut  
oien pekatubak,  
bi traje zekazkiten  
*por mayor* artubak;  
ogei pezeta aundi  
dendan pagatubak,  
galdu egin dira ta  
or dira kontubak.

---

(2) Bertso-paperak: *aditu nai dubenak*.

- 4/ Pensatubagatikan  
 «Nere falta ezta!»,  
 norberak esatia  
 ez da izaten basta;  
 orrelako konturik  
 iñon pasa ezta, (3)  
 erropa triste oiekin  
 darabilten festa!
- 5/ Goizueta'n biar ta  
 Madrilla, nagia,  
 ez dauka billaturik  
 bere parajia;  
 Mariak ala ere (4)  
 beti korajia:  
 «Nik bigaldu nuben eta  
 or konpon zaitia!
- 6/ «Orrenbestez ez dezu  
 egiten, nagia,  
 gauzak ezin konponduz  
 au nere nekia!  
 Ez badezu ondu nai  
 egin dan kaltia,  
 erakutsiko dizut  
 nun dan alkatia».

---

(3) Bertso-paperak: *iñon pasa ez da.*

(4) Bertso-paperak: *Maria ala ere.*



7/ Deskuidatu ezker  
falta da gloria,  
justiziak eman du  
bere sententzia,  
tokatzen dan bezela  
arrazoi garbia:  
«Zuk galdu dituzu eta  
pagatu, Maria!».

8/ Dirua lajatzeko  
Maria ori penaz,  
guretzat gaizki esaka  
gabaz eta egunaz;  
katak paratzen ere  
ibilli da benaz,  
berak dituben tatzak  
besteri emanaz.

9/ Eziñ esan nezake  
Isidro gaitzik,  
Mariari askotxo  
nai diola baizik;  
oben pagamentuba  
egin zuben pozik,  
trantzian estali da  
artu gabe lotsik.

10/ Pagatzen ez utzi nai  
Isidrok Mariari,  
berak eman naiago  
kantidade ori;  
oju egiten zuten  
abua dala neurri,  
ogei pezeta ziran  
esateko garbi.

11/ Eztegu billatzen guk  
gauzarik debalde,  
merezi duten onran  
geratubak daude;  
bi soñ ogei pezeta  
pagatuta libre,  
tela baliosuak  
ez ziran alare.

12/ Oien pasadizua  
esango det garbi,  
okerreko lekura  
zituzten ekarri.  
Mariak malan sartu, (5)  
postillonak arri,  
Vitoria'tik gora  
pasa ziran sarri.

---

(5) Bertso-paperak: *Maria malan sartu.*

13/ Modu (b) orretan zuten  
aurrera segitu,  
orra gero jabia  
utsikan gelditu;  
zein ostatutan dauden  
eztegu aditu,  
ditubenak badaki  
eman nai balitu.

14/ Maria mantxa gabe  
zori onekoa,  
Jaungoikoak egin du  
dan bezelakoa;  
gauzak enkaminatzen  
paregabekoa,  
Sevilla'n pasatu da  
zure soñekoa.

15/ Lorentzak zuben kargu  
enkaminatzeko,  
kausa billatu zuben  
bertan lajatzeko;  
Mariak puska gorde  
gona konpontzeko,  
ori zan motibua  
diranak galtzeko.

16/ Gure gauza eskatuta  
gu gera gaiztoak,  
berak ere ez dabilta  
biziro justubak;  
orain baña lenago  
bazterrak nastubak,  
Isidrok pagatzen ditu  
guzien kastubak.

17/ Tokatzen ez da Isidrok (6)  
larogeiko urria,  
orretan ezagun da  
ez dala pobria;  
lenago egin dio  
aurrez faboria,  
aurrari eman bezaio  
beraren nonbria.

18/ Emezortzi bertsoan  
nai det akabatu,  
oien tatxarik ez det  
garbiro klaratu;  
puebloa ez dedin  
geiegi tentatu,  
errespetu onean  
biar degu kantatu.

---

(6) Bertso-paperak: *Isidro*.

(1858)

## BURNI-BIDEEN ASIERARI JARRITAKO KANTAK

Amabi bertso auek, Bonarparte'ren bildumatik artuak ditugu. Bertso-paper bat da; moldiztegi-izena: «*Donostian: Ignacio Ramon Baroja ren moldizteguian - 1858*».

Bertsoen gaia, izenburuak azaldu digu. Alegia, burnibidea egiten asi ziran eguna, Donostia'ko erriak nola ospatu zuan.

Egun orri buruz, Gorosabel'ek onela esaten digu bere *Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa* liburuan:

«*La inauguración de los trabajos de esta vía férrea se hizo el día 22 de junio de 1858, á saber, en la villa de Tolosa por la mañana, en un montículo existente donde hoy el frontón del juego de pelota de San Francisco, y en la ciudad de San Sebastián, por la tarde, á la orilla derecha del Urumea, en el barrio de Loyola. Concurrieron á ambos solemnes actos el Gobernador de la provincia, la Diputación de la misma, los respectivos Ayuntamientos de los dos pueblos, los representantes del crédito*

*moviliario, los ingenieros directores del camino y diferentes personajes invitados al efecto. Un inmenso gentío, lleno de satisfacción, alegría y esperanzas las más halagüeñas, realzaba la grandiosidad de la ceremonia civil y religiosa. A su virtud, se dio principio en los días inmediatos en el primero de los citados dos puntos á los trabajos de desmonte, que se fueron extendiendo sucesivamente a otros...».*

Bertso-jartzallearen izenik etzaigu iñon agertzen. Leen esan bezela, ogei ta zazpi urte zituau orduan Bilintxek. Baiñan bertso auek ez dira iñolaz ere arenak; ezta bertsolari jator batenak ere, gure iritzirako beintzat.

- 1/ Amabi bertsoetan  
nai det erakutsi  
burni-bideen lanak  
nola diran asi;  
Donostia'ri beti  
bear zaio utzi,  
zeñengandik beauten  
besteak ikasi.

2/ Berreun ta irurogei  
zaldunen kantakin,  
zortzikoan esanaz  
beren indarrakin:  
Donostia'k daukazki  
onra aundiakin  
burni-bide itxaso  
gaurdandik berekin.

3/ Inguru guztietan  
poza alegria,  
beñere ez da ikusi  
festa bat obia;  
jendeaz edertua  
Urume guria,  
esan zekien zala  
zeruko gloria.

4/ Bandera eder batekin  
aiuntamentua,  
eliz-gizon ondoren  
diputazioa;  
burni-bideen jabe  
gizon sonatua,  
Trulla aundimendiz  
ondo lagundua.

5/ Gabarretan sarturik  
gure Urumea'n,  
kontentuz dijuazte  
uraren gañean;  
tiro ajustatuak  
ziran arrobian,  
guztiak jarri dira  
saltatu naian.

6/ Allegatu bezela  
guztiak airean,  
arkaitza jo dute  
instante batean;  
eliz-gizonak lenen  
beren ordenian,  
jarri dira pozkiro  
laneko tokian.

7/ Gobernadore jaunak,  
giputzen semea,  
arpikoa artuta  
eman du golpea;  
diputaduak palaz  
bete du gurdia,  
iraultzeko zegoan  
erriko alkatea.



8/ Apaizen buru danak,  
Gipuzkoa'koa,  
Jaunari egin dio  
otoitz lenengoa;  
bendizio eta kantu  
zortziko lengoa  
zeruak gaur artu du  
Donostia'koa.

9/ Asiera emanda  
burni-bideari,  
deitu diote biba  
gure erregiñari;  
elizara dirade  
lasterka etorri,  
graziak ematera  
Jaungoiko Jaunari.

10/ Guztiak dabilzkite  
arpegi alaiak,  
bañan barren-barrendik  
diote urdallak:  
«Geratuko gerade  
onetara illak,  
ez baditugu laster  
billatzen botellak».

11/ Legor eta urean  
jarririkan maiak,  
guztiak zeukazkiten  
beren bazkariak:  
batzuek zelaietan,  
etxean besteak,  
ontzi eder batean  
Okendo-semeak.

12/ Guztiak irten dira  
bazkaldu onduan,  
zortzi milla persona  
bai gitxienean,  
plaza ingurutzera  
beren alegrian,  
despedituaz elkar  
gauaren erdian.

**ZORTZIKOA**  
**DONOSTIARRAK KANTATU DUTENA**  
**IFAR ALDEKO GURDABIDE**  
**BURNIZKOARI**  
**OTSANDIRO ASIERA EMATEAN**  
**DONOSTIA'K GARAGAR ILLAREN**  
**22'AN 1858'EN URTEAN**

Sei bertso auk, beren kanta-astearekin, Bonaparte'ren bildumatik ditugu. Moldiztegi-izenik gabeko bertso-paper bat da.

Izenburu luze orrek, gaia zer dan ederki adierazi digu. Aurreko saila ere gai berari jarria da, eta Gorosabel'ek zer dion antxe arkituko du irakurleak.

Bostgarren bertsoak beste gai bat ikuitzen du. Donostia, leengo iri zaar geienak bezela, arrizko ormaz inguraturik zegoan. Orma oiek traba besterik egiten ez dutela eta lurrera bota egin bear dirala esaten du bertso auen egilleak. Andik bost urtera asi ziran ori egiten, 1863.V. 4'an.

Bertso auk para dituana ez da, iñondik ere, bertsolari jator bat. Bereala oartuko da irakurlea.

Beste argitaraldi bat, bertso-paperetan au ere, «*Donostian: Pío Baroja-ren moldizteguien. 1858*» argitaratua, Paris'ko *Bibliothèque Nationale*'n arkitu genduan. Aldaketarik ez du.

Santesteban'en *Colección de Aires Vascongados* izeneko kanta-bilduman, bertso auek ere antxe daude. Aldaketa bakarra dute: izenburua oso laburturik dagoala: *Burnibideari jarritako zortzikoa*.

Doña ere badu Santesteban'en bilduma orrek, eta, oi duanez, kanturako ta pianorako. Guk kanturakoa bakarrik aldatu degu onera.



3 FIN *p*

*cresc.*

*p*

*p*

*f*

*D. C.*

Arriturik dezagun  
 erabat aitortu  
 gizonak orain duela  
 guzia garaitu.

1/ Zer egin al dezaken  
españolak beti  
urez eta legorrez  
noiz ez da ikusi?  
Elkano ta Okendo,  
ez esan besterik,  
oiek zituen ondo  
munduak miretsi.

2/ Gerozko denboretan  
ikusi ta esan  
gerran ainbat astean  
zintzoa ote dan.  
Jendea pozturik da  
agertzen batean,  
Ur-mea deitua dan  
ibai bazterrean.

3/ Aberatsak pobreak  
an dira arkitzen,  
Giputza dutelako  
guzia ikusten.  
Gañera asitzen dira  
apaizak kantatzen,  
ala galdetzen dute:  
Zer zaigu gertatzen?

- 4/ Donostia, zuretzat  
mentura onekoak  
dira soñu ta kanta  
otsdun andikoak.  
Burnizko bidea da  
onela asitzen,  
zori onak ditugu  
duda gabekoak.
- 5/ Arrizko murre beltzak  
zaitu orain lotzen,  
a!, ikusi bear degu  
lurrera erortzen.  
Ondasun aundientzat  
leku izan ez ta  
laster ariko zera  
kanpora zabaltzen.
- 6/ Bedeinka zazu, Jauna,  
gizonaren obra,  
lenen Zuri deiturik  
gaur asi duena,  
len-bait-len bukatu-  
ortik datorkigun  
ugaritasuna ta  
gerok nai deguna.

(1863)

**BERTSO BERRIAK**  
**«BAPORE ORREN KASOAK...»**

Bertso auen gaia ere, burnibidea da. Baiñan trena ibiltzen asia da, eta orren berri eman nai du bertsolariak.

Bertso auek ere, Bonaparte'ren bilduman dagoan paper batetik ditugu. Moldiztegi-izena: *Tolosan: Pedro Gurruchaga-ren moldizteguian.*

Beste argibide jakingarri bat ere ematen zaigu paper orretan: *Pueden imprimirse. Tolosa 2 de octubre de 1863. Benito de Gorostegui.*

Benito ori, zensura-egillea zan; orduan ere olakorik bazan-eta. Ta bere baimena 1863.X.2'an eman bazuan, bertsoak jarri berri-berriak zirala dudarik ez da.

Gorosabel'ek, bere *Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa* liburuan, onela esaten baitigu, burnibidegintzari asiera 1858.VI.22'an eman zitzaiola adierazi ondoren:

*«...y aunque en los cuatro años siguientes no se desarrollaron con la actividad que el público deseaba, ya en el quinto se les dio un gran impulso. Merced a esto, se consiguió po-*



*ner la vía en estado de explotación el día 1.º de Septiembre de 1863 en la Sección comprendida entre la ciudad de San Sebastián y villa de Beasáin; el 22 de Octubre del mismo año, desde San Sebastián hasta el Vidasoa; el 20 de Agosto de 1864, la sección de Beasáin á Alsasua».*

Damurik, bertsoak nork paratuak diran etzaigu esaten. Baiñan bertsolari jator eta on bat da.

Dakigunez —ikus bestela *Auspoa* 88-89-90—, Xenpelarrek iru bertso-sail ditu, burnibidea dala-ta jarriak. Lenengo biak, frantzesen kontra. Izan ere, emengo jendea peoi-lanetan ari zan bitartean, aiek kanpotik etorri eta gora-goko zer-egiñetan, zuzendaritzan-edo, ari ziran. Irugarren sailla, berriz, 1867 urtean jarri zuan, lanbide oiek bukatzearekin bat irabazbideak ere urritu eta jendea len bezin pobre gelditu zanean. Alegia, ondoegi oitu eta gero ezin etsi.

Irugarren sail ortako bertsoak eta onako auk, badute alkarrekin, gure iritzirako beintzat, antz puxka bat. Ta biak ere, zazpi puntuko bertsoetan paratuak dira; alegia, *Ikusten duzu goizean, Erari maitagarriya* eta *Ai ori begi ederra* bezelako bertso-mota orretan.

Xenpelarrenak ote dira, beraz, bertso auk? Ditekena da. Baiñan, besterik gabe, ezin genezake baietz esan; ezetz ere ez, ordea.

Ala ere, zortzigarren bertsoan goierriar izkera nabari da: *oñe len aña pauso*. Xenpelarren

bertsoak baldin badira, *añe* ori moldiztegi-utsegite bat izango da. Baiñan Goierrin ere bazan garai artan bertsolari oparoa: Alzo'ko Manuel Antonio Imaz (1811-1893). Arenak, beraz, bertso auek? Ditekena ori ere. Baiñan beti ere duda, eta dudaren mendetik ezin atera.

- 1/ Bapore orren kasoak  
esplikatuaz bertsoak  
jarriko ditut batzuak;  
jendearentzat etorri dira  
oraiñ egun erosoak;  
indar urak eta suak,  
ideatzeko maixuak,  
daude gizon jakintsuak.
  
- 2/ Jornalean zebiltzanak,  
kobratutzean kintzenak,  
eztira gaizki izanak;  
gero gerokoak, gobernu ona  
noiznai ona du gizonak;  
puntu onetan zeudenak  
ta zintzo gorde duenak  
badaduzkate bolts onak.

3/ Dantzatutzeko diruak  
izan dirade moduak,  
asko dira zabalduak;  
ostalariak dituzte asko  
ortikan erraz bilduak;  
puntuetan egonduak,  
aiek daude gallanduak,  
trajiñoso izanduak.

4/ Tragoak erandakoan,  
bururik eztan lekuan,  
diruak galdu jokuan;  
ta zorrak gero eziñ pagatu  
kintzena artutakoan;  
jeneral asko kanpoan  
gertatua da gaurkoan,  
ta gero damu kolkoan.

5/ Gauza zuanak saltzeko,  
erostunak bai artzeko,  
moduak baliatzeko;  
denbora onak izandu dira  
aurretik geienentzako:  
naiz jornaleroentzako  
ta trafikanteentzako,  
saiatu diranentzako.

6/ Bidea jarri danean,  
bapore ori lanean  
asi da modu onean:  
kargak aundiak bagoietan da  
jendeak asko trenean,  
elementoak gañean,  
agintzen diotenean  
azkarra dago juanean.

7/ Naiz eraman naiz ekarri  
egingo digue sarri,  
kargak naiz aundiak jarri;  
deskansu ona etorri zaie  
bost mando ta mula zarri;  
karraxiaz «Iso! Arri!»,  
or ibiltzen ziran larri,  
eziñ eragiñez korri.

8/ Bapore ori aidoso,  
naiz karga asko eraso,  
oiduka dabil garboso;  
eztadukagu egin bearra  
oñez len aña pauso:  
an sartuta jua eroso,  
orain gaude portunoso,  
kontentu gerade oso.

- 9/ Bildu baporeagana,  
merke egiten du lana,  
dago pruebak emana;  
bestetan ezin asi diteke  
kargamenturik daukana;  
ori dago abillena  
eta justu dabilena,  
au da gu bear giñana.
- 10/ Bapore orren kontua,  
milagrozkko asuntua,  
nunbait bada talentua;  
mundu onetan ijenioak  
badarama aumentua;  
etzan mutill aiñ tontua  
alako instrumentua  
lendabizia sortua.
- 11/ Bapore jabe enpresak  
bazeduzkan interesak  
orrela jartzeko gauzak;  
españolakin uniturikan  
ibilli dira frantzesak;  
guztiori alabantzak,  
ipini gaituzte pozak,  
saltoka dabiltz biotzak.

## **BERTSO BERRIAK**

### **«BERTSO BERRIYAK JARRI BIAITUT BURNIZKO BIDE OIENAK...»**

Amabost bertso auek ere, burnibideari jarririk dira. Goralpen aundiak egiten dizkiote tramankulu berriari. Ez du orrek zer arriturik. Gizona illargiraiño joatea guretzat gauza aundia izan bada, aundiagoa izan zan gure aurrekoentzat trena ikustea.

Izan ere, fede osoa zion orduan jendeak aurrerapenari: mesede aundiak ekarriko zituela eta kalterik bat ere ez. Geroztik, ordea, uste edo fede ori pipiak ederki jo duala ematen du. Ikusiak ikusi ta...

Bertso auek ere, Bonaparte'ren bildumatik ditugu. Bertso-paper bat da; baiñan ez du esaten ez bertsolariaren izenik eta ez moldiztegiarenik ere.

Urterik ere ez du; baiñan aurreko beste bertso-paper ori agertu zan urtean-edo aterako zan au ere argitara.

1/ Bertso berriyak jarri biatut  
burnizko bide oienak,  
konbeni dala esaten dute  
entenditutzen dutenak,  
ferrokarrillak zertako diran  
lenago etzekiyenak,  
orain balorez korritzen degu  
guztiak edo geienak.

2/ Biba gure erregiña eta  
ministeriyo guztiyak,  
oien ordenaz maisubak ziran  
plana botatzen asiyak;  
trabajantiak izan ditugu  
guztizko irabaziyak,  
lana eginda bizi geranak  
oieri eman graziyak.

3/ Españiya'n egin dituzte  
burnizko bide berriak,  
orretaraño apenas dauden  
gutxi kostata jarriak;  
askorentzako etorri dira  
egun konsolagarriak,  
frantzesagandik azaldu dira  
makina izugarriak.

4/ Jende guztiya arritu gaitu  
frantzesak daukan idiak:  
bizkarrak asko nekatu gabe  
eragin ditu bidiak;  
balorez ero makinarekin  
ditu abillidariak,  
jakinduriyan daude oriyek  
guztiz neurri bagiak.

5/ Bide oriyek egitian  
frantzesak dira nagusi,  
gizon abillak asko dirala  
ez al ditugu ikusi?  
Au ofiziyo aberatsa da,  
obe genduke ikasi,  
eskubidiak oso kentzia  
apenas duen merezi.

6/ Balori ori orain asi da,  
orrek daukazki portiak,  
eztakizkigu itzegiteko  
gauza guztiyen artiak  
ez du balio aberatsakin  
pobria berdin jartziak (1),  
argatikan daude sinalatubak  
paraje diferentiak.

---

(1) Bertso-paperak *artia* eta *jartzia* erdiko puntu auek. Baiñan dudarik ez da, *artiak* eta *jartziak* bear duala.



7/ Preziyoetan jarriyak daude (2)  
diferentiak klasiak,  
jan edan ondo egit'ez badu  
korrituko du gosiak;  
igualmente kojuak edo  
mangatu alakoxiak,  
aberatsena dijuanian  
pobriena ere batian (3).

8/ Gusto duanak merkia artu  
galestiyari utzita,  
bañan guztiyok pagatu biar,  
orretan gauden etsita;  
instante batez egin dezake  
urrutixora bisita,  
erredoblia kostako zagu  
oñez juaten asita.

9/ Gure modukok ezin juzgatu (4)  
bapore orren kasuak,  
orren makinak izango dira  
gauza sustanziosuak;  
mogimentuban jartzen danian  
ez dadukatzi mansoak,  
ez da bildurrik arrapatzeko  
oñez dijuan atsoak.

---

(2) Bertso-paperak: *preziyuetan jarriya dade*.

(3) Gaizki dago *batian* punturako. Moldiztegi-utse-  
giteren bat noski. Ez *al da baziak* izango?

(4) Bertso-paperak: *moduko*.

10/ Karga aundiak ez du bildurtzen,  
orrekin gera arritu,  
bostegun persona izanagatik  
utsik bezela korritu;  
ukatuko ez du manduen gisa,  
orrek nai ez du gelditu,  
ori formatu duen gizonak  
jakinduriyak baditu.

11/ Askotan jendez oso betia,  
beñere ez da utsikan,  
kargatikan ajola gutxi  
ez bada enkuentro txarrikan;  
dijuanian begiratuta  
ez da bistatzen kasikan,  
orrenbesteko belaun gozoa  
artu liteke pozikan.

12/ Orain edozein kristau arlote  
noiznai trenian sartuta, (5)  
kaballerua balitz bezela  
estadu aundi bat artuta;  
orrek portian biar duana  
dirutan ezin sortuta,  
farrez itotzen egon diteke  
zenbaiti begiratuta (6).

---

(5) Bertso-paperak: *sartu*.

(6) Bertso-paperak: *zenbait*.

13/ Juan zaizkigu neke gogorrak,  
bizi biagu eroso,  
inposible da gu izatia  
lenago bezin penoso; (7)  
erri batetik bestera ere  
baporez guaz airoso,  
alimentuba ere merkatu (8)  
egingo zaigu akaso.

14/ Alimentuba merkatuko da,  
guretzat daude egunak;  
munduban asko izango gera  
desiatutzen degunak;  
neronek ala naiago nuke,  
izango ditut lagunak,  
galesti bada arloteria  
allegatuko zagunak.

15/ Baporiaren egitekuan  
amabost bertso berriak,  
bildurrez nago ez ote diran  
biar bezela jarriak,  
geroatik ondo ez dakizkidan (*sic*)  
orren makinan berriak;  
gusto duanak ikasi bitza,  
ez dira penagarriak.

---

(7) Bertso-paperak: *lengo*.

(8) Bertso-paperak: *mercatuta*.

## «ARTOA EROSI BEARRA...»

Sei bertso auek, *Argia* astekarian agertu ziran, 715 zenbakian, 1934.XII.23'an. *Argia* orrek, *Galde-erantzuerak* izeneko sail bat zuan. Edozein galdera egin zitekean, eta astekariak berak edo irakurleren batek erantzuerara eman. Askotan, bertso-eskea izaten zan.

Galde-erantzuerara oietako batean, 4.755'garrean, onela idazten du bere izenik azaltzen ez duan batek:

«Emen bialtzen ditut aitari jasotako bertso zar batzuek.

Geiago ba omen dira, baña aztuak omen ditu. Norbaitek osatuko balitu, poz-pezik jaso ko genituzke».

Ondoren, sei bertso auek idazten zituan Bukatzeko, *Argia'k* onela zion:

«Iñork balekizki, erantzun bertso-zale oni».

Baiñan ez degu uste erantzunik izan zanik. Guk beintzat ez degu arkitu. Osatu gabeko saila degu, beraz, eta ala bearko du, bertso-papera azaltzen ez dan bitartean.

Bertso auei antz aundia artzen diegu guk, Xenpelarren *Bajatu gera graduari* asten diran

bertsoakin. Ikus: *Auspoa*, 88-89-90, 231 orri-aldetik aurrera. Arenak ote dira, ba? Ditekena noski.

Izenburua, *Argia*'n ezer ez eta guk erantsia da, lenengo bertsoetik artuta.

1/ Artoa erosi bearra,  
etxean ume-negarra,  
au gizon ipur mearra!  
Errukarria, nere kristauak,  
etxe txarreko maiztarra;  
nausia badu kaskarra,  
errenta azitzen azkarra,  
ez dik lasa eingo puzkarra.

2/ Goizean asi dietan,  
eskas eguardietan,  
gauak utsik erdietan.  
Ai, gure galtzak tokia pranko  
baditek ipurdietan;  
barau bijilietan  
pobreen familietan  
gabiltza aspaldietan.

3/ Batera parragarritza,  
bestera negargarritza,  
beti onela gabiltza.  
Errukarria, nere kristauak,  
gure munduko bizitza;  
ijaratik degu gaitza,  
sinistatu nere itza,  
padezitzen gabiltza.

4/ Maiztar etxe txarrekoak  
ta langille kalekoak  
modu igualekoak;  
jeneralean ume geiago  
alakoari eman Jainkoak; (1)  
ez suerte onekoak,  
goseak egotekoak  
gu ta gure modukoak.

5/ Nik baserrian galera,  
joan giñaden kalera,  
ta sarri ospitalera.  
Lana danean gauza geranak  
joaten gera jornalera;  
diru gutxiren billera,  
aiek bota ez pillera,  
mixeriazko ibillera.

---

(1) Oso ankaluzea degu lerro au. Bertso bikain  
auek jarri zituan bertsolariak, etzuan ori ola aterako.  
*Oriei eman Jainkoak* edo olako zerbait bearko du.

6/ Trozoan ai dan gaxoa,  
ezin jatorik besoa,  
beti arrastaka pausoa;  
dendari oiek egiten dute  
erdiarekin osoa;  
au da daukagun plazoa,  
beti gizontzen auzoa,  
nere kintzena gaxoa.

---

Oker zeudelakoan, an eta emen zuzenketa batzuk egin ditugu bertso auetan. Ona emen zuzendutako lerro oiek zein diran eta *Argia*'k nola zituan: 1/3: an gizon ipur mearra; 1/4: errukarria, nere kristaua; 1/6: nagusia badu kaskarra; 4/8: gu ta gure mundukoak.

\* \* \*

Ondarroa'ko Jose Maria Etxaburu ren esku-idatzi batean ere agertu dira sei bertso auek, aldaketa auekin ordea: 1/7: errenta jarritzen azkarra; 1/8: ez du lasai eiño uzkarra; 2/2: gauzik ez eguardietan; 2/6: barauak bijilietan; 4/4: jeneralian ume geiago eman; 4/5: alakuai Jaungoikuak; 4/8: gutxi gure modukuak; 6/2: ta jo ezin da besua; 6/4: denderuak egiten digu; 6/6: orra guk degun plazua; 6/8: agur kintzena gaixua.

(1864)

**BERTSO BERRIAK**  
**«NERE BIOTZA DAGO**  
**PESALUNBRATUA...»**

Bertso auetan, langille batek bere guruzbidea agertzen digu. Bere izena ta jaioterrria ere esaten dizkigu: Migel Inazio de Toledotxiki, Amezketa'koa. Orrek ez du esan nai bertsoak berak jarriak diranik; bertsolariren bati jarri-araziko zizkion.

Bonaparte'ren bilduman arkitu genituan bertso auk. Bertso-paper batean daude; moldiztegi-izena: «*Tolosa; imprenta de Pedro Gurruchaga*».

Beste argibide jakingarri bat ere badu paper orrek: «*Pueden imprimirse. Tolosa 16 de Noviembre de 1864. Benito Gorostegui*».

Leen ere esan bezela, orduan ere bazan zensura, eta langintza ori egin bear zuana, Benito Gorostegi zeritzan. Garai artako bertso-paper askotan agertzen dira izen-deitura oiek. Oraingo ontan, 1864.XI.16'an eman zuan bere baimena. Ta bertsoak ere etziran askoz leenago jarriak izango.

Seigarren bertsoak onela esaten du:

«Marruekoetako  
lengo gerra artan...»



Gerra ori 1859-1860 urteetan gertatu zan.  
Aren berri ikasi nai duanak, ikus dezala *Aus-  
poa*'ren 129'garrena.

- 1/ Nere biotza dago  
pesalunbratua,  
zergatikan nabillen  
deskalabratua;  
gusto bat eziñ eta  
pena sobratua,  
eta nai nukeanik  
eziñ logratua.
  
- 2/ Amezketako naiz,  
orra erabaki,  
Don Migel Inazio  
de Toledotxiki;  
bajutik asia ta  
gora ezin jaiki,  
zer modutan nabillen  
esango det aurki.
  
- 3/ Ama gazterik ill zan,  
aita alargundu,  
gero beste batekin  
zitzaigun ezkondu;  
gu goseak zarpa zar,  
kopetak illundu,  
ugaz-ume gaixoak  
baditu bi mundu.

4/ Gurasoak ninduen  
egiñ eta azi,  
bear aña ez baño  
aurrenetik asi;  
ematen ditut milla  
esker eta grazi,  
oso desonratzea  
eztue merezi.

5/ Kunplitu ziranetik  
bederatzi urte,  
gurasoai laguntzen  
ogei ta bat arte;  
irabazi ta eman  
egin diet fuerte,  
ta aitzenean gero  
utsik utzi naute.

6/ Marruekoetako  
lengo gerra artan  
paga bearra eta  
nintzan diru faltan;  
ta aitak konseju bat  
eman ziran ortan:  
«Nik pagatuko diat,  
serbi nazak bertan!».

7/ Basora joan giñan  
dirurikan bagez,  
aitak jornalak artu  
eta pagatu ez;  
orra guzietatik  
gertatu alrebes,  
ta danak ez ditut nik  
noztutzen errez.

8/ Amak deretxoz egin  
ziran mejoria,  
Jesukristok diola  
zeruko gloria;  
aitak eskatu digu  
azitze-saria,  
arekin danak kito,  
au da komeria.

9/ Pobreza neretzako  
bide danetatik,  
ala partitua naiz  
gurasoetatik;  
ogei pezetako bat  
kendu nion bati,  
larrua sikiera  
estaltzeagati.

10/ Ogei eta bat urte  
orrela munduan  
gurasoen laguntzan  
pasatu ginduan;  
neretzat irabazten  
asi naiz orduan,  
bizimoduen billa  
al dedan moduan.

11/ Errealen batzuek  
bildu ziranean,  
emaztea artua  
naiz aldemenean;  
zerbait jarri ere bai  
bizitza onean,  
arekin disgustuak  
ditut azkenean.

12/ Urte bete kunplitu  
bage ezkontuta,  
orain berriz gelditu  
naiz alargunduta;  
Jaungoikoak nolabait  
andrea kenduta,  
ni bizimodu ona  
or nabil galduta.

13/ Nere emazte orrek  
alaba zuan egiñ,  
laguntzan izan ditu  
barbero emagiñ;  
zer pasatu dan garbi  
nik eziñ itzegiñ,  
an izango zan zerbait,  
ill da beñepeiñ.

14/ Beti deskalabruak  
edozeñetara,  
fortuna billa nabill  
onera ta ara;  
juateko asia naiz  
Ameriketara,  
lanbide onak zaizkit  
or ere atera.

15/ Lapurreta Amezketan  
emen da gertatu,  
an ere enredoak  
neri suertatu;  
al dedan justuena  
munduan portatu,  
ala ere kastiguti  
eziñ apartatu.

16/ Baiona'ra asita  
au zan disgustoa:  
bidera atera ta  
neri errejistora;  
norbaitek egin zuan  
juizio gaiztoa,  
ai nik an artu nuan  
lotsa ta sustoa!

17/ Baiona'n pasajea  
neukan pagatuta,  
kofrea ere berriz  
barkuan sartuta;  
abiatzeko pronto  
paperak artuta,  
ta preso artu naute  
errira deituta.

18/ Buenos Aires'tara  
nai nuan pasatu,  
barku-jabe batekin  
nintzan ajustatu,  
Baiona'n pagatuta  
juateko prestatu,  
nere ibillerakin  
liteke gustatu.

19/ Papergille; eskribau,  
trena ta ostatu,  
nituen kuartuak  
ditugu gastatu;  
ni nabillen lekuan  
bada nork eskatu,  
boltsa bein bakarrean  
ez degu askatu.

20/ Kulparik bage nintzan  
ni preso artua,  
iñork pagatu nai ez  
egin zan gastua;  
ni gelditu-azi ta  
juan zan barkua,  
amaika sufritzeko  
mundura sortua.

21/ Orra kontuak zerbait  
adieraziak,  
nola izan ditudan  
beti desgraziak;  
badira personak ni  
txit gaizki utziak,  
Jaunak erremeditu  
gaitzala guziak.

(1867)

**BERTO BERRIAK**  
**«GURE KONTUAK DIRA SOBRA**  
**ITSUSIYAK...»**

Amabost bertso auk, Errenteri'ko Enrike Elizetxea zanaren bertso-bilduman arkitu genituan.

Bertso-paper bat da. Moldiztegi-izena: «*TOLSAN: Mendizabalen alargunaren moldizteguien*».

Orren aurretik eta bertsoen ondoren, agintarien baimena: «*Pueden imprimirse.—Tolosa 6 de Noviembre de 1867.—Benito Gorostegui*».

Bertsoen gaia auxe da: Nagusi batek, «arta ganbaratik diyotela ostu» eta bere maizterra jotzen du lapurtzat. Onek, ala bearrez, etxea ustutzen du. Baiñan bertsoak atera ere bai, erru gabea dala adieraztearren.

Bertsoak ez dira berak jarriak izango. Garai artako oiturari jarraituz, bertsolariren bati para-araziko zizkion. Ez degu uste bertso auen benetako egillea nor izan zan iñoiz ikasiko degunik. Baiñan susmo bat bururatu zaigu.

Bertso onak dira; maizter ori Igantzi'tik



Errenteri'ra dator, euskera inguru orretakoa da; bertsoak, 1867 urtekoak dira. Ori dana kontuan artuta, Xenpelarrenak izan ditezkeela dudarik ez da.

Ain zuzen, onen familia ere, zergatik ez dakigula eta zenbait urte aurretik, Naparroa'tik Errenteri'ra aldatua zan.

Baiñan auzi ori, Xenpelarren diran ala ez alegia, irakurlearen gain utzita, ona emen bertsoak:

1/ Gure kontuak dira  
sobra itsusiyak,  
munduan bizi gera  
asko ikusiyak;  
kantatutzera nua  
sustantzi guziyak,  
maizter bati zer egin  
diyon nagusiyak.

2/ Nagusi batek ori  
ongi egin al du:  
bere maizter umilla  
gezurretan saldu?  
Gañera kulpa gabe  
kreditua galdu,  
azkenean etxetik  
kanpora biraldu.

3/ Nafarroa'n Irantzi  
deitzen dan erriya,  
etxe batian maizter  
nengoen jarriya;  
erakutsi dirate  
istillu gorriya,  
Errenteriya'n nago  
andik etorriya.

4/ Artua ganbaratik  
diyotela ostu,  
zeñek eramana dan  
deklaratzan eztu;  
maizterra erabilli  
justizian estu,  
orra kulparik gabe  
familia nastu.

5/ Aurra egin da neukan  
andria oyian,  
nagusiya joan zaio  
desarrazoyian:  
«Emen nator gauza bat  
ikasi nayian,  
nor dabill arto billa  
nere sapayian?».

6/ Andria beriala  
izaturik jarri:  
«Eztakit, nagusiya,  
ganbarako berri;  
pobria izan arren  
atzaparrak garbi,  
eztiyot egundaño  
alerik ekarri».

7/ Au da nere andriak  
esan zuen itza:  
«Zertan eman nai digu  
lapurraren gaitza?  
Seguru jarri beza  
ganbarako giltza,  
gañera arratoiak  
desterratu bitza».

8/ Sekretariyo batek  
biartu nau joanta:  
etzela kastigorik  
egiya esanta;  
artua ganbaratik  
nola zuen falta,  
maizterraren aitzaki  
arratoiak janta.

- 9/ Anka biko arratoi  
ibildun abilla,  
ganbara bisitatzen  
artuaren billa;  
karga beza pistola,  
bestela fusilla,  
pekatariya nor dan  
agertu dedilla.
- 10/ Ganbaran obe luke  
armatuta jarri,  
deskuidatu leiteke  
dabillena sarri;  
orduan egin beza  
justiziya garbi,  
kulparik gabe autan  
ez inor ekarri.
- 11/ Maizterrari bengatzen  
gizonaren griña,  
errezelua dauka  
guretzat egiña;  
andriak pena du ta  
neria jakiña,  
gezurrak ematen du  
sabeleko miña.

12/ Lengo maizterra ere  
onla ateria,  
oraindik gogoan du  
bakoitzak beria;  
au da nagusiyaren  
abillidadia:  
gezurretan galtzen du  
kulparik gabia.

13/ Geiago eztezagun  
endredorik para,  
orra etxia libre  
ala bear bada;  
Nafarro Irantzi'tik  
etorriyak gera,  
probintzi Gipuzkoa'n  
Errenteriya'ra.

14/ Adios Nafarroa,  
graziyak Irantzi,  
orra etxia libre  
borondatez utzi;  
nagusiyari nere  
partetik gorantzi,  
zer egin ta dagoen  
eztakiyon antzi.

15/ Abandonatu gaitu  
fameliya dena,  
gaizki egin duela  
izan beza pena;  
nagusiya da jabe  
bertso berriyena,  
oiek eta geiago  
merezi duena.

**BERTSO BERRIAK**  
**«ZORIONEKO GURE EZKONDU**  
**BEARRA...»**

Ogei bertso auk, Paris'ko *Bibliothèque Nationale*'tik ditugu. Bertso-paper bat da; moldiztegi-izena: «*Tolosan: Mendizalen alargunaren moldizteguian*».

Liburu onen izenburua, sail ontako zazpi-garren bertsoetik artua da.

Paperaren goenean, eskuz idatzita, onela esaten da: *reçu en 1869*. Urte orretan eskuratu dala esan naiko du. Ta argitaratu ere, urte berean edo lentxeago egingo zan.

Paperaren barrenean, berriz, inprentaz onela esaten da: «*Pueden imprimirse: Benito Gorostegui*».

Baimen emate ori eta emalearen izen-deitura oiek, bein baiño geiagotan agertu zaizkigu. Baiñan besteetan urtea ere esaten zaigu eta oraingo ontan ez. Ala ere, bertso auk inprentatik noiztsu atera ziran, zerbait somatu genezakela uste degu.

Zensuraren azterketa pasa bear ori, Isabel bigarrena erregiña zalarik izandu zan, 1844 urtetik-edo. Bertso-paperak, bearbada, geroxea-

go asi ziran bide ortatik. Lege ori, eta erregiña ere bai, 1868'eko Iraillaren iraulketak kendu ta baztertu zituan. Eta 1869'ean *Constitución* berria atera zanean, askatasun osoa eman zan zernai gauza argitaratzeko.

Beraz, bertso auk zensuraren ataka ezagutu baldin bazuten, 1868'ko iraulketa baiño leenagokoak dira.

Txeetasun auetan zergatik sartu geran, gero azalduko da. Badu bere garrantzi-puxka.

Zenbait tokitan, zimurretan-eta, papera gas-tatua dago eta ezin irakurri. Olakoak puntuz idatzi ditugu.

Lenengo bertsoaren puska bat askotan kantatzen da gaur egunean ere. Onela kantatu digu Azkoiti'n jaió eta Zarautz'en bizi dan Patxi Larrañaga adiskideak:

Ai au zori txarreko  
ezkondu bearra,  
ni baño obeto zeok  
Xanti mutilzarra.







1/ Zorioneko gure  
ezkondu bearra,  
orrek ekarritzen dit  
begira negarra;  
ez degu alkantzatu  
bizimodu txarra,  
ni baño libreago  
dago mutil zarra.

2/ Emaztea nai nuan  
ez nedukanean,  
ta okerrago nabill  
orain dedanean;  
arrastaka nekean,  
goseak lanean,  
mixerian naiz beti  
edo geienean.

- 3/ Andre azkarra daukat  
zerekin bagendu,  
urte oro umea  
pijo egiten du;  
aurten ala ere bi,  
guk eziñ mantendu,  
arro banintzan orra  
ederki umildu.
- 4/ Pobre bi alkarrekin  
gerade bilduak,  
gaztetan biok arro,  
orain umilduak;  
lan du ume-negarra  
eziñ ixilduak,  
zer egiñ asko dauka  
guretzat munduak.
- 5/ Bost urte eta erdi  
dira ezkondurik,  
bost ume an dauzkagu  
eziñ mantendurik;  
mixerian gabilta  
danok argaldurik,  
gustora bizitzeko  
ez dago modurik.

6/ Saiatutzen gerade  
bai egiñalean,  
geiagoren premiak  
dauzkagu ...ean;  
pobreak umetsuak  
enjeneralean,  
familia mantentzeko  
lan det jornalean.

7/ Jornal txikiak daude,  
utsa beti balitz,  
malpekado askotan  
ez degula gabiltz;  
jaioak bizi naia  
ta ondo al balitz,  
baña gure moduak  
aldrebesak dabiltz.

8/ Andreak arditikan  
ez dit irabazten,  
familiak zergatik  
dion eragozten;  
lan dauka umeakiñ  
jana eman da jazten,  
ta urratzen dituzten  
zarpa zarrak josten.

9/ Etxetik bakar nago  
irabazirako,  
famelia mantendu  
eta jantzirako,  
errenta pagatu ta  
bear dan guzirako;  
ez naiz aberastuko  
nere iritzirako.

10/ Irabazi txikiak,  
jana ere galesti,  
ez diteke zintzurra  
sagardoz maiz busti;  
sortutzen ditugunak  
gutxik daramazki,  
modu onetan gabiltz  
mixerian gaizki.

11/ Gau goizetan gutxi ta  
eskas eguardian,  
... ..  
piskaren gordian;  
dietak segitzen du  
gure alderdian,  
lekua badaukate  
galtzak epurdian.

- 12/ Jateko garaietan  
etxera banator,  
allegatu baña len  
usai txarra dator;  
emen atskeri-pilla  
eta beste bat or,  
eziñ sartu liteke  
sukaldian iñor.
- 13/ Aur bat bularrean da  
bestea arrastaka,  
zutitzen diradenak  
gonatik tiraka;  
salbo-ta oian eta  
sukaldean kaka,  
nere andre gaixoak  
lanik asko dauka.
- 14/ Euli ta arkakuso,  
tximutx eta zorri,  
pizti oiek dauzkagu  
entretenigarri;  
persegidore asko,  
alimentuz urri,  
ez dira egun txarrak  
guretzat etorri.

15/ Ez daukat ostatuan  
modurik jateko,  
ta orra zer gustoa  
etxera juateko;  
gauza onakiñ ez det  
sabela beteko,  
oso goseak gabiltz  
egia esateko.

16/ Irabazira juaten  
banaiz urrutira,  
karta ta eskumuñak  
maiz izaten dira;  
beti diru-eskea  
nabillen tokira:  
agudo biraltzeko  
piska bat sikiera.

17/ Zorrak beti egiñak  
daude alde aurrez,  
jateko falta eta  
umeak negarrez;  
berriz nori eskatu  
or nabill bildurrez,  
ai zer indianoa  
nagoen legorrez!

18/ Andrea, nun dituzu  
lengo ponpa galak,  
... ..  
ta zinta zabalak?  
Naiz diru gutxi izan  
lujoz egiñalak;  
ez gaude orduan da  
oraiñ igualak.

19/ Arropa berririk ez,  
zarrak zikinduta,  
umeakin or gabiltz  
eziñ txukinduta;  
gaztetan bezela ez  
arro apainduta,  
orra zertara geran  
biok ezkonduta.

20/ Oraingoaz despeira  
noa ematera,  
ez noa geiagorik  
... ..  
enteratzeko artu  
guziok papera,  
ta gaiean zaudetenak  
kontuak atera.

\* \* \*

«EIBAR — *Imp. de Pedro Orúe*» moldiz-  
tegian, or goiko bertso oiekin zer ikusirik asko  
edo geiegi duan bertso-paper bat argitaratu zan.  
Ogei ta bat bertso dira.

Lenengo, iru bertso auk:

Milla zortzireun da  
larogei ta zortzian,  
bertso berriak jartzen  
orañ naiz abian;  
esplikatu nai nuke  
eusker a garbian,  
jakin dizatela  
probintzia guztian.

Gure ofiziua  
errementaria,  
lanik gabe ikusi det  
istillu gorria;  
gezurrik gabetandik  
esain dut egia,  
munduak jakiñ dezan  
nere miseria.

Gaztetan deseotan  
beti ezkontzeko,  
konforme giñan eta  
andria artzeko;  
arlotien adornua  
gere kalterako,  
engañatu nintzan ni  
obia zalako.



Urrengo, aurreko paperaren amalau bertso: 1, 2, 5, 8, 10, 11, 12, 13, 14, 15, 16, 17, 18 eta 19'garrena. Aldaketak: 1/3: onek ekartzten digu; 2/3: eta orain okerrago; 2/4: nabill dedanian; 2/5: arrastaka neguan; 5/1: Ama-bi urte t'erdi; 5/2: dira gu ezkondurik; 5/3: bi ume an daduzkagu; 8/5: lan du umiakñ; 10/5: irabazten ditugunak; 11/3: jan on bat egiñ gabe; 11/4: juan dan aspaldian; 12/5: emen azkari pilla; 12/7: ezin sartu ditaiki; 13/3: sarri askotan berriz; 14/3: peste oiek dauzkagu; 15/3: ezta pozikan ere; 15/6: zabalik beteko; 16/1: Kanta saltzera juaten; 16/4: maiz etorten dira; 17/1: Zorrak beti egiñik; 17/8: nabillen legorrez; 18/3: polizoi aundia ta; 18/4: zintatxo txabalak; 18/7: orduan eta oraiñ; 18/8: ez gaude igualak; 19/4: eziñ txukundata.

Ta, ondoren, beste lau bertso auek:

Mundu onetarako  
 badaukagu plana,  
 ezagutzen dezute  
 pobria naizena;  
 alkar serbitutzia  
 au da biar dana,  
 egidazute neri  
 limosnatxo bana.

Jaiotzatikan naiz  
 pobrezan sortua,

iduki ezazute  
nerekiñ kontua;  
gorputza ere daukat  
oso baldartua,  
aspua sakatutzen,  
anka okertua.

Orañ dala sei illabete  
kanta saltzen asi,  
sos batzuek onetan  
ditut irabazi;  
ez dakienik bada  
dezala ikasi:  
Oñati'n jaiua da  
Bilbao'n naiz bizi.

Estamangutik flako,  
ankatikan erren,  
atentziua artu  
ni nola nabillen;  
karidade egitera  
mobitu len-bait-len,  
zeruan gozatzeko  
alkarrekiñ, amen.

Ta bertsoen ondoren onelan esaten: «*Es propiedad de Gregorio y nadie podrá reimprimirla sin su consentimiento*».

Gregorio orrek 1888 urtean ateratzen du paper ori. Oñati'n jaioa da eta Bilbao'n bizi. Errementaria da, baiñan lanik ez du. Orduan

kanta saltzen asten da. Sei illabete egin ditu orretan eta sos batzuek irabazi.

Gizagajoak zerbaitetan saiatu bearra zuan noski; eta bertso zaar batzuk artu, komeni zitzaiona aldatu, falta zuana osatu, ostera argitaratu eta saltzeari ekiten dio. Ortan ez degu ezer arrigarririk ikusten. Baiñan bestek olakorik egin ez dezan «ortzak erakustea», ori ezin genezake begi onez ikusi. Txirritak diona:

leku askotan ikusi oi da  
lapur guardiyan lapurra,  
animaliya ere igual  
katua eta zakurra:  
berak asko nai t'ezin sufritu  
bestek daraman apurra.

\* \* \*

Etxe orrek berak, «*Eibar — Imprenta de Pedro Orúe*» moldiztegiak alegia, ostera ere argitaratu zituan bertso auek, eta Gregorio orren aginduz, dudarik gabe, oraingo ontan ere. Baiñan ez du esaten, beste iñork argitaratzekotan, beraren baimenik bear danik. Ta ola obeto.

Bertsoak, aurreko argitaraldian bezelaxe daude. Iru aldaketa bakarrik: 5/2: iru ume an daduzkagu; 13/3: irugarrena berriz; ta bere azken bigarren bertsoan, lenengo lerroa: Oraiñ dala bi urte.

Alegia, denbora aurrera joan da eta familia ugaldtu. Ta aldakuntza oien berri ematen digu.

Ala ere, kanta saltzen asirik leen sei illabete eta orain bi urte badira, urtea ere aldatu bearra zuan lenengo bertsoan, baiñan ori aztu-edo egin zaio.

**BERTSO BERRIAK**  
**«KANTATUTZERA NUA EJENPLO**  
**BAT ONA...»**

Amasei bertso auetan, langille batek bere nagusi bizkor eta abillaren pausoak eta egin-tzak kontatzen dizkigu.

Bertso-paper batetik artuak ditugu. Moldiz-tegi-izena: «*Donostian: Ignacio Ramon Baroja-ren echean*».

Paper ori bi tokitan arkitu degu: Bonaparte'ren bilduman eta Paris'ko *Bibliothèque Nationale*'n.

Bigarrenengo ontan dagoan paperak, eskuz idatzita, onela esaten du: *reçu en 1869*. Alegia, bertso-paper ori urte orretan eskuratua izan zala. Ta bertsoak jarri ere, or nunbait egingo ziran.

Zortzigarren bertsoan onela esaten du:

Burnizko bire oiek  
asi ziranian,  
kuarto batzuek artu  
zituen lanian...

Leen ere esan degunez, burnibidegintza 1858 urtean asi zan, eta 1863'an bukatu.

Bertso auen egillea nor izan zan? Ez degu somatzeko biderik ikusten. Baiñan batean-edo, Errenteri edo Oiartzun aldeko izkera nabari da: *nola den jakindu*. Ta bertso onak dira. Ez al da Xenpelar izango?

1/ Kantatutzera nua  
ejenplo bat ona,  
memoriyak kalte du  
geldirik egona:  
pausuan argiñ bati  
gertatu zaiona,  
onetzaz kejatu da  
dijuakiyona.

2/ Orain sei urteraño  
da artzaia izana,  
gero ikasi zuen  
argintzako lana;  
obeak alde batera  
artu beregana,  
ni ta beste askori  
petardua emana.

3/ Irun'dik lendabizi  
asiya argintzan,  
beste geiagorekin  
ni ere an nintzan,  
jornala irabazten  
onen esperantzan,  
orain askok badaki  
gu nola gabiltzan.

4/ Erdipuerdi zuen  
argintzan ikasi,  
mutillak artu eta  
jarri da nagusi;  
orren aundi-puntua  
relojo ta guzi,  
orain danak utzita  
or dabill igesi.

5/ Irun'dikan Zarautz'a,  
gero Endarlatza,  
leku askotan asi,  
urte gutxi pasa;  
aiziaren gisako  
mudatzen erraza,  
ona ofiziale  
abillaren traza.

6/ Menditik etorrita  
nagusi jarriya,  
arturik bastoia ta  
relojo berriya;  
mingaiñ ederra zuen,  
erale garbiya,  
ni ta beste askoren  
engañagarriya.

7/ Mutillak bere mende  
etzebillen *poco*,  
lana eragiñ eta  
jornalak geroko;  
aspaldiyan egin du  
zenbait orrelako,  
asko engañatu da  
obia dalako.

8/ Burnizko bire oiek  
asi ziranian,  
kuarto batzuek artu  
zituen lanian;  
zeukanari atera  
oriyen gañian,  
asko dabill onela  
gaurko egunian.



- 9/ Etxe berri bat ere  
orduban egin du,  
ez al dezute ori  
nola den jakindu?  
Diruak korrituan  
daukanari kendu,  
gastatu diran arte  
eztarriya leundu.
- 10/ Etxe orrek bazuen  
nor jabe egiña,  
esamiñatu dute,  
preziyo jakiña;  
launa biar zutenak  
artu dute biña,  
gabe gelditu danak  
sabeleko miña.
- 11/ Ori ezkondu zala  
dira iru urte,  
orain andriagandik  
bizi da aparte;  
lenago ibilli da  
kafe ta billarte,  
erriyan konfiantza  
galdu duan arte.

12/ Ezkongaitan aberats  
soña pasatua,  
baziduriyen markes  
interesatua;  
besteren puskarekiñ  
ondo gozatua,  
oraiñ isillik dago,  
ez orla usatua.

13/ Etxiaren tratua  
egin zuenian,  
tranpiya zerabilen  
bere barrenian:  
siñalia jaso ta  
biyaramonian  
papera firmatzeko  
deskantsu onian.

14/ Gizonak izatia  
ainbeste malezi,  
diruak artu eta  
nai zuen igesi;  
begira zegoenak  
atzetik ikusi,  
langilleak jornalik  
ez al du merezi?

15/ Zer egin ta dagoen  
ez da akordatzen,  
guraso zarrak orren  
aurrak gobernatzen;  
andrea iñude dauka  
soldata kobratzen,  
bera etxe zar baten  
paretak urratzen.

16/ España' n egin du  
makiña bat dantza,  
orain Frantzi aldera  
bigarren mudantza;  
orra bertso berriyak  
naiko alegrantzak,  
merezi duen gizon  
baten alabantza.

**BERTSO BERRIAK**  
**«AURTEN IZAN DA SOBRA EUDI**  
**TA ARRIYA...»**

Amar bertso auek, Donostia'ko Jose Manterola zanaren bilduman arkitu genituan. Moldiztegi-izenik gabeko bertso-paper bat da.

Paper ortan, eskuz idatzita, itz auek irakurtzen dira: *28 Marzo 1874, 500 ejs.*

Oker ez bagaude, itz oiek Jose Manterola'k berak idatziak izango dira. Bertsoak inprentatik atera edo berak eskuetaratu zituan eguna adierazi naiko dute lenengo; ta, ondoren, zenbat ale argitaratu ziran; alegia: *ejs.: ejemplares.*

Bertso auek, famelietako mixeri ta gose-tea agertzen digute.

Izan ere, 1874 urtean jarri baziran, bigarren karlista gerratea zebillen orduan eta motiborik asko izango zan orrela mintzatzeko. Olakoetan, soldaduak ere erriak mantendu bear baitzitian.

Auek danak gure iduripenak edo gure iritziak dira; baiñan gerrarik ez da bertsoetan aitatzen eta gauza segurua ez da ordukoak izatea.

1/ Aurten izan da sobra  
eudi ta arriya,  
España'n egin du  
milla pikardiya;  
zenbait familietan  
daguén larriya,  
miseria bastante  
bertatik jarriya,  
urrengo urtia dator  
txit izugarriya.

2/ Pobreza erregalo,  
miseriya jaki,  
gu nola bizi geran  
Jaungoikuak daki;  
arrazoia nai nuke  
klaro erabaki,  
ematen badirate  
ainbeste bat toki,  
orra au ere esan  
zuzen da poliki.

3/ Etxian miseriya,  
erropetan gala,  
gaizki bizi liteke  
fameliya ala;  
laister egin biar du  
buena edo mala,  
suba txikia eta  
beti utsik pala,  
alegiya artoa  
gogotik badala.

4/ Lan au paratzen dezu  
zenbait gazterekin,  
pisu bat arritsua  
zintzilik berekin;  
aditzera emango det  
onenbesterekin,  
eltzia min konduan  
ur utsarekin,  
aragiya nun duban (1)  
Jaungoikoak jakin.

5/ Aragiya arateian,  
artua errotan,  
ogiya sobraturik  
panaderietan;  
gauza paratutzeko  
banegoke betan,  
kreditu txarra dauka,  
ez eman zorretan,  
amaika orla badago  
munduba onetan.

6/ Mingañian koipia, (2)  
txit gutxi eltzian,  
otordu txarra dago  
alako etxian;  
len ere biziro ondo  
mantentzen etzian,  
zakurra ta katuba  
marruaz atzian,  
lanak aguro egin  
mayian jartzian.

---

(1) Bertso-paperak: *aragiya munduban*.

(2) Bertso-paperak: *mingañian corpia*.

- 7/ Alako fameliya  
 beti dago gosiak,  
 orain konta ditzagun  
 zenbaiti pasiak:  
 dirua falta eta  
 artuak eziak,  
 zakurra ta katuba  
 marruaz asiak,  
 gure mundo tristia  
 nolabait baziak.
- 8/ Gizonak esaten zion  
 bere andriari:  
 «Artorik eman naiko  
 eztit iñork neri;  
 gure ume gaxoak  
 ditut urrikari,  
 nerau berriz lanian  
 iñon ezin ari (3),  
 alaba, saldu obe den  
 traje berri (y) ori.»
- 9/ Alabak trajerikan  
 eztubela salduko,  
 lenago dala bertan  
 goizian galduko;  
 «bazkariya bedorrentzat,  
 eztet afalduko,  
 bañon tratu orretan  
 eztiot lagunduko,  
 arlote jartzen banaiz  
 enaiz ezkunduko».

---

(3) Bertso-paperak: *iñore ezin ari*.

10/ «Trajia egin unan  
artua zanian,  
ama engañaturik  
umore onian;  
aita berriz bakarrik  
dolorez lanian,  
akordatu nindunan (4)  
denbora juanian,  
mantenduko bagera  
orain saldu bian!» (5).

---

(4) Bertso-paperak: *acorda nindunan*.

(5) Bertso-paperak *biar*. Baiñan itza laburtuaz, *biar den* esan bearrez, *bian* ere esaten da eta alaxe bear du emen punturako.



## BERTSO BERRIAK

### POBRIEN BIZI-MODUA NOLA DAN

Onako sail au, bi bider beintzat argitaratu izan da, eta bietan or goiko izenburu orrekin berarekin.

Batean, «*Azpeiti-an P. Martinez-en molde-tegui-an*». Argitaraldi au, bertako Fidel Uria apaiz jauna zanaren paperetan arkitu genduan; baita Loiola'ko Aita Jose Inazio Arana'ren bilduman ere; ta bai Bonaparte zanaren bilduman ere.

Bigarren argitaraldia, «*Vergara: J. López*» moldiztegian argitara emana, Tolosa'ko Baleriano Mokoroa jauna zanaren paperetan azaldu zan; baita Oiartzun'go Manuel Lekuona apaiz jaunaren bilduman ere.

Alkarren artean ez dute aldaketarik bi argitaraldi oiek.

Bertso auek, *Euzkadi* egunkarian ere agertu ziran, 1933.III.8'an, *Mañariko*'k bialduta. Bertsoen ondoren, itz auek erantsi zituzten: «Bertso oneik Atutxa'tar Estepan emengo gixonak emoniko «bertso-papel» batetik arturikoak dira». Alegia, aurreko argitaraldi oietako bati kopiatuak dirala. Ala ere, aldaketa batzuk

sartzen ditu euskera bizkaieratzearren. Merezi ez dute ta ez ditugu emen jartzen.

Izenburuak, bertsoen gaia zer dan ederki adierazten digu.

Egillearen izenik ez da esaten; ezta ori ikas-teko biderik ematen ere.

Urtea ere ez da adierazten; baiñan sail au noizkoa dan gutxi gora-beera somatzeko argi-bide batzuk badaude.

Bederatzigarren bertsoak dionez, «daneta-rako jarri da makineria», eta orregatik «galtzen ari da oso esku-lan guztia»; amargarrenak esaten digunez, berriz, «batetik gerra-otsa» da, «bestetik gosia», eta «eskiña askotatik berriz koleria».

Beraz, bertso aukeratu ziranean, onako zigor aukeratu danak batera ziran: industriaren berritzea zala-ta esku-lanaren urritzea; an edo emen gerra; bertan gosea eta toki askotan kolera. Bazan, bertsolariak dionez esateko, «nainko tormentia».

Makinaria ugaltzea eta esku-lana galtzea, trena azaldu ta gerokoak izango dira. Trena, dakigunez, 1863 urtean asi zan. Garai artako zenbait bertsolarik, ederki adierazi dizkigute orduko larritasun oiek. Ikus, adibidez, Xenpe-larren bertsoak eta bai liburu ontako beste sail batzuk ere.

Ain zuzen, 1865 urtean, kolera-izurrite gaiz-to bat zabaldu zan. La Meca'n piztu omen zan,

eta andik Ejipto'ra pasa. Emen, 60.000 lagun il omen ziran. Ango jende danak, ikaratuta, ba-koitzak al zuan tokira iges egin zuan, eta orrela izurritea toki guzietara zabaldu. España'n, Valencia'tik barrena sartu omen zan, itxasontziren batean etorritako frantzes batek ekarrita. Izurrite ori, 1874'an bukatu omen zan.

Urte oietan, iru gerra izan ziran: 1866'an Austria ta Prusia alkarren aurka; 1870'an, Frantzia ta Prusia; ta 1872-1876'an karlisten bigarrena.

Ala, bertso auetan aitatzen diran baldintza guziak betetzen dira, eta urte oietakoa izan ditekete bertso-sail au.

Baiñan beste bi aldiz ere agertu zan gaitz kutsakor ori España'n, joan dan eunkadan: 1884'an eta 1890'an. Urte oietan ere, makinaria ugaltzea zala-ta nai ainbat lan etzan izango; nai ainbat jan-gauza ere ez, bearbada; ta an edo, emen gerra ere bai.

Alegia, zailla da bertso auek noiztsu jarriak diran xuxen eta dudarik gabe erabakitzea.

1/ Bertso berri batzuek  
biar ditut jarri,  
aditzera emateko  
ez dakitenari;  
begiratuaz ondo  
eskiña danari,  
pobriak badaukagu  
egoaldi gorri.

2/ Gauzak garesti daude  
juan dan aspaldian,  
lanik asko badago  
famili aundian;  
saiatu arren bakoitza  
alegin guztian,  
jenterikan geiena  
dago miserian.

3/ Au da bizi-modua  
pobre gaixoena,  
aditu beste bage  
izan leike pena;  
pensatu egia dala  
esaten dedana,  
famili askotan nik  
ikusten dedana.

4/ Goizeko gosaria  
porru-saldarekiñ,  
katillura eginda  
zopatxo birekiñ;  
oliua gutxitxo,  
koiperik ez berdiñ,  
egunaz ibiltzen da  
korputza txit ariñ.

5/ Egoardian babak  
badira gorriak,  
argi ipintzen ditu  
jentiak begiak;  
asperturikan gauzka  
beltza eta zuriak,  
gañerako dauzkagu  
tajada txikiak.

6/ Gabeko afaria  
baratxuri zopa,  
gaztañak diranian  
orduan bai poza;  
iturriko ur freskua  
aieri bultzaka,  
memori sanuarekiñ  
oera lasterka.

7/ Dieta gordetzia  
on da gorputzian,  
amets gutxi egiten  
degu arratsian;  
triste egonagatik  
urrengo goizian,  
lanari ekin biar  
geroko pozian.

- 8/ Eranik gabetandik  
biar degu etsi,  
premia izan arren  
ezin gera iritxi;  
sagardua gastatu,  
ardua oso gutxi,  
dakuan apur ori  
txarra ta garesti.
- 9/ Galtzen ari da oso  
esku-lan guztia,  
danetarako jarri  
da makineria;  
jan bage ezin bizi,  
au da komeria,  
pobre gaixuak badu  
naiko miseria.
- 10/ Batetik gerra-otsa,  
bestetik gosia,  
eskiña askotatik  
berriz koleria;  
gure denboran bada  
naiko tormentia,  
bizirik gelditzen danak  
ai zer suertia!

11/ Orra akabera eman  
bertso berriari,  
begiratu, aberatsak,  
pobre gaixuari,  
estaliaz al dana  
miseria ori,  
Jaungoikuak pagatuko  
dizute zueri.

(1890)

## BERTSO BERRIAK D. U. JARRIAK

Ogei ta lau bertso auek, Oxford'eko *Bodle-yan Library*'tik ditugu. Bertso-paper bat da; moldiztegi-izena: «*EIBAR. Imprenta y encuadernación de Pedro Orúe.*»

Izenburuak, egillearen izen eta deituraren asierako letrak ematen dizkigu. Geren buruari eragin diogu zein bertsolari izan ditekian, baiñan alperrik; ez degu sumatu.

Bertsoen ondoren, erri-izen bat eta eguna ematen zaizkigu: *Gallarta a 24 de Marzo de 1890*. Baiñan Bizkai'tik etorriagatik, izkerak gipuzkoar itxura geiago du.

Izan ere, D.U. orrek beste baten gertaerak kontatzen dizkigu: Otxandío'ko Santiago Pujana'renak.

Garai artan oitura zanez, D.U. orrengana joango zan Pujana ori; bertsoetan jarri bearrak adierazi; bertsolariak bere lana egindakoa, ostera joan, bertsoak jaso eta pagatu; eta, azkenik, Eibar'ko moldiztegi orretan paperak argitara-arazi.

Santiago Pujana ori, bertsoetan esaten dan bez beintzat, ixtillu gorriak ikusita zegoan. Bai-



ñan nork lagundurik izan zuan, eta, aieri bere  
esker ona erakustearren, bertso auk zabaltzen  
ditu.

1/ Milla zortzireun larogei eta  
amargarren go urtean,  
bertso berriak jartzera nua  
nere bizitza batean;  
nere ibillera adierazi  
nai det euskal artean,  
motibo asko izandu ditut,  
asko neretzat kaltean.

2/ Santiago det nere izena,  
Pujana apeliua,  
nolabait ere nere pausoak  
esplikatzera nua;  
nere klaseko beste askoren  
moduan pobre jaioa,  
Bizkai'ko erri Otxandiano'n  
artu nuen bataioa.

3/ Lendabiziko ofizioa  
izandu nuan artzantzan,  
aita ta ama pobreak eta  
jateko egin bear zan;  
asko alditan tripatik triste,  
soñean lujorik etzan,  
nai ez dedala amaika aldiz  
otzak eragin dit dantzan.

4/ Modu orretan pasa nituan  
urte batzuek mendian,  
oraindik ere egondu banintz  
akaso obe nukean;  
pensatu nuan arma artzea  
boluntariomentean,  
denbora asko pasatu nuan  
an ere malamentean.

5/ Erretirada egin genduan  
soldaduzkatik isillik,  
gero aitakin lana egiteko  
ez neukan gogo aundirik;  
len pasa nuan nolabaiteko  
bizitza ez neukan azturik,  
Somorrostro'ko minetâ nintzan,  
onekin ez det oberik.

6/ Etorri eta andikan laister  
gaixorik nintzan gertatu,  
eskarrik asko zer bear nuan (1)  
dana ziraten prestatu;  
patrona eta medikua're  
ondo zitzaiztan portatu,  
nere bearrik iñoiz balute  
gustoz nai diet pagatu.

---

(1) Bertso-paperak: *eskarriasko*.

7/ Gaixo ondoan asi nintzaden  
sano ta fuerte lanean,  
egia esan errukiarik  
etzan jan da eranean;  
lana egunero egin bear ta  
askotan berriz gabea,  
ala ere fuerte segitu nuan  
geroko amar urtean.

8/ Azkeneko bi urte aietan  
nenguen pozez beterik,  
osasun ona eta gañera  
dirutan zerbait jantzirik;  
andregeia're nere ustean  
neukan ona billaturik,  
motibo asko deritzat dala  
egoteko kontenturik.

9/ Sasoi orretan neretzako zan  
mundu ontako bizitza,  
bi milla eta bosteun pezeta  
baneuzkan irabazita;  
familiaren kargu egiteko  
moduak artzen asita,  
naiago nuke zer pasa zaidan (2)  
danak esan al banitza.

---

(2) Bertso-paperak: *nayanuque zer pasa zaidan.*

10/ Andreegi orrek nai ziralakoz  
pasa nituen bi urte,  
amorioa berena leku  
askotan ipintzen dute;  
mundu ontako naigabe asko  
oiek ekartzen dituzte,  
motibo orrek neri ekarri  
ziran makiña bat kalte.

11/ Nere dama orren martxa-modua  
ezagutu nuanean,  
konsuelorik ezin billatu  
nuan Bizkai'ko lurtean;  
nere biotza penaz beterik  
erdibitu bearrean,  
Amerikara martxa artu nuan  
sarturik barku batean.

12/ Beaje artan juntatu giñan  
euskaldun asko ontzian,  
nere biotza sosegatu zan  
zerbait aiek ikustean;  
umore ona gastatu oi da  
gazte euskaldun tartean,  
entretenitzen ninduen zerbait  
lotara juan artean.

13/ Nere lagunak ezaguturik  
ez nenguena txit ondo,  
errukiturik esan oi zieten:  
«Penak bota itzak, Santiago!»  
Gogo tristeak esaten ziran:  
dibertitzeko ez nago.  
Bakarrik jartzen nintzan negarrez  
sosegatu arteraño.

14/ Neuzkan odolak ur biurturik  
barkutik irtetzerako,  
indarra aitu eta jan ezin  
gogorik ez nualako;  
Buenos Aires'en purga eman zieten  
mareona zalako,  
sustantzi gutxi izandu zuan  
nere gaitza sendatzeko.

15/ Jainkoak daki nola jua nintzan  
ziudadetik aparte,  
Gipuzkoa'ko Itxasondo'ko  
gizon bat billatu arte;  
ganadu asko zeukan berea  
ta interesetan fuerte,  
bere laguntzat artu ninduan  
an egondu nintzan arte.

16/ Gaixo nengoan ta lagun orrek  
bere etxera arturik,  
izandu balitz anaia ere  
zer ausilio oberik?  
Osasun billa abia nintzan  
lengo kontuak azturik,  
ez nuan utzi probatu gabe  
ark zekien medikurik (3).

17/ Mediku aiek esan zieten  
buelta uretan artzeko,  
obe nuala eta al banuan  
Bizkaia'ra etortzeko;  
an geldituta esperantzarik  
ez nedukan bizitzeko,  
Jainkoak daki nola modutu  
nintzan barkuan sartzeko.

18/ Emendik juan eta bueltan  
enbarkatu bitartean,  
lau illabete pasa nituan  
Buenos Aires'ko partean;  
pezeta asko gastatu nuan  
an egon nintzan artean,  
nere lagunak danak pagatu  
ziran onradamentean.

---

(3) Bertso-paperak: *arc zequien mecurik.*

19/ Buenos Aires'ko lagun orrekin  
despedida zan tristea,  
pensatu nuan abrazaturik  
milla esker ematea;  
merezi luke bere alabantzan  
zerbait geiago jartzea,  
bañan geroztik zer pasa zaidan  
orain nua esatera.

20/ Ilko nintzala onera baño  
len jenteak uste zuan,  
baña animoso etorri nintzan  
bide guztian barkuan;  
uretatikan saltatu nuen  
pozik Bilbao'ko portuan,  
milla pezeta gertu oraindik  
neronekin banituan.

21/ Gallarta'tikan martxatu nuan,  
bueltan bertara etorri,  
denbora artako nere pausoak  
ziraden lastimagarri;  
gaixorik gaizki pasa nituen  
gitxienean urte bi,  
len ondo pasa nituen aien  
ordaingarria zan ori.

22/ Botika eta medikuetan  
neukan pezetak aiturik,  
iñon etxean diru bage eta  
gañera berriz gaixorik;  
bañan ala ere zer bear nuan  
pronto nintzan serbiturik,  
zeñek on egin diran ez daukat  
oraindik ere azturik.

23/ Eskarrik asko, nere lagunak  
nautena auxiliatu,  
mundu onetan nola datorren  
ala bear degu artu;  
naigabe asko oraiñ artean  
bear izan det pasatu,  
nere bizitza nola izan dan  
orra egiz esplikatu.

24/ Lengo lekuan nabil lanean  
pasa dan urte betean (4),  
orain bizi naiz lengo pena aiek  
utzirik alde batean;  
nere biziak peleatu du  
naigabe askon tartean,  
begiratua izango al naiz  
zeruetako atean.

Gallarta a 24 de Marzo de 1890.

---

(4) Bertso-paperak: *pasa dan urte batean.*



## BERTSO BERRIAK

### «JORNALEROEN BERTSOAK»

Amabi bertso auek, Paris'ko *Bibliothèque Nationale*'tik ditugu. Bertso-paper bat da; mol-diztegi-izena: «*Eibar.—Imprenta de Orúe*».

Saiets batean, itz auek eskuz erantsita: *Pris a Durango, 1891*. Alegia, gure iritzirako beintzat, paper ori Durango'n urte orretan es-kuratua dala.

Oxford'eko *Bodleyan Library*'n ere agertu da bertso-sail au; baiñan Paris'ko argitaraldi ori bera da.

Errenteri'ko Enrike Elizetxea zanaren bil-duman ere azaldu dira bertso auek; baiñan bes-te argitaraldi bat: «*Imp. de Baroja*».

Bietan aurrena zein dan ez dakigu. Alda-ketarik ez dute alkarren artean.

Egillearen izenik ez da esaten, eta ori so-matzeko biderik ez degu ikusten. Ta pena da, bertsolari ona degu-ta.

Bere izenik zergatik izkutatzen duan, errez igerri diteke. Bera ere jornaleroa izanik, aundi xamarrak esaten ditu nagusien aurka. Orrega-tik, azken bertsoan diona: «ez det izenik mar-

katu». Ez nagusienik, eta bererik ere ez. Zertako bere burua premirik gabe arriskutan sartu?

Iñork bertso aukerak kantatu nai baditu, Xenpelarren *Aizak i motell mañontzi* asten diran bertsoen doñuan egin dezake; eta bai mutilzarrai jarritako bertsoen doñuan ere. *Auspoa*'ren 88-89-90'garren alean, 141 eta 241 orri-aldeetan arkituko ditu doñu oiek.

1/ Jornaleroen bertsoak  
jarriko ditut batzuak,  
nere moduan ibillituko  
naski geientsuak.  
Opizio nekosoak,  
txit neketako pausoak,  
gu baño obeto egon oi dira  
kartzelan presoak.

2/ Goizetik asi lanean  
denbora ona danean,  
zeñek agindu paltarik ez  
degu aldamenean.  
Bata besteren pelean  
aritu egiñalean (1),  
jostatutzeko gogo aundirik  
ez degu gabeen.

---

(1) Bertso-paperak: *aditu*.

3/ Lanean goizetik asi,  
argitu baño len kasi,  
agintzalleak beti an daude  
bulla ta karraxi.  
Langille aÑe nagusi  
askotan ditut ikusi,  
berak geldi ta agintzen beti  
nai duenak bizi.

4/ Pegoi jende ta argiñak  
dauzkagu gauza jakiñak:  
auldadea ta neke gogorra  
ta arropak zikiñak.  
Egiñ arren alegiñak  
ezer sobratu eziñak,  
nekerik aundiena duenak  
jornalik txikiñak.

5/ Gaur kontratista berriak  
badaude asko jarriak,  
ia ikasi ditugu zerbait  
oien ibilliak.  
Jornalero-galgarriak,  
bulloso izugarriak,  
ez dakit nola irauten duten  
oien eztarriak.

6/ Goizean «¡Pronto, arriba!»,  
artan jendea larri da,  
andik aurrera guretzat dago  
istillu gorria.  
Artzen digute neurria,  
bizitza penagarria,  
txutikan eziñ egon generala  
jarri gera ia.

7/ Laneko asera pronto,  
orretan ez dira tonto,  
oien artean badaukate (2)  
malezia franko.  
Berak gobernatu ondo,  
gero bullaka ta salto,  
illundu eta ere esan nai  
ez digute: «¡Alto!».

8/ Obra formal bat atera  
publiko errematera,  
ura artzera jendea asko  
txit gaizki juate'da.  
Baja bitikan batera,  
saltzalleak suertea,  
ta ori jornaleroarentzat  
aldrebes juate'da.

---

(2) Bertso-paperak: *badaucate*.

- 9/ Peritoak du tasatzen,  
 errematean ateratzen,  
 berealaxe asitzen dira  
 alkarri pujatzen,  
 prezio danak bajatzen,  
 au ez da erraz barkatzen,  
 ta gero beti aritu bear (3)  
 pobreak penatzen.
- 10/ Egunaz eta gabetan  
 beti gabiltza dietan,  
 ta propinarikan utzi bage  
 iñun tabernetan.  
 Kintzenako egun artan  
 akaso gera zorretan,  
 jornalak ia zer egiñ duten  
 andreak erritan.
- 11/ Danok alkarri lagundu,  
 ori egingo bagendu;  
 ta gure lege katolikoak  
 au erakusten du.  
 Langilleari ez kendu,  
 bestela ondo konpondu,  
 modu ortara gintezke danok  
 obeto mantendu.

---

(3) Bertso-paperak: *aditu*.

12/ Orra bertsoak plantatu,  
nai dituanak kantatu,  
kontu oiekin ez dira denak  
izango kontentu.  
Ez det izenik markatu,  
ala ez danak barkatu,  
eta aurrera lenago baño  
obeto portatu.

(1891)

**BERTSO BERRIAK**  
**«DAMA BATZUEK EKENTZEN DIRA**  
**IGANDE-ARRATSALDETAN...»**

Amalau bertso auek, Donosti'ko neskameen aundi-usteak eta aberats agertu naiak azaltzen dizkigute.

Bertso-paper bat da; moldiztegi-izena: «*San Sebastián: Imprenta de La Unión Liber...*» Papera puskatuta dago eta ortik aurrerakoa falta da.

Donostia'n bertan jaso genduan paper ori, Juan Arbelaitz, Manterola liburu-dendaren nagusi zanaren eskutik.

Bertsolariaren izenik ez da iñon esaten; baiñan darabilen euskerak, gure iritzirako beintzat, Donosti'koa ez bada, urbil xamarrekoa dala salatzen du.

Azken bertsoak onela esaten digu:

Karnabal onak pasatutzeko  
gaztiak zerbait biar du...

Alegia, Iñauterietan parra pixka bat egi-tearren jarritako bertsoak. Orregatik, ezin ba osoro sinistu emen esaten diranak...

1/ Milla zortzireun larogei eta  
amaikagarren urtian,  
pentsamentuan egondua naiz  
lengoko egun batian:  
dama gazte bat ikusi nuen  
Donostiya'ko kalia,  
pobre izanta luzitu nairik  
aberats batek añian.

2/ Dama batzuek ekentzen dira  
igande-arratsaldetan  
ondo jantzita pasiatzera  
aurraren aitzakiyetan;  
abanikua eta sonbrilla  
arturik esku banetan,  
oiek ainbeste malizi dunik  
ezta probintzi (y) onetan.

3/ Lanian ere asten dirade  
goizetik oso presaka,  
gero denbora pasatutzeko  
ispilluari beidaka;  
balkoi batetik bestera alkar  
ibiltzen dira señaika,  
mutil gazte bat pasatzen bada  
arri babarrun tiraka.



- 4/ Atenziyua jartzen diyote  
 musika soñu onari,  
 noizik bakoitza begiratuaz  
 beren soñeko gonari;  
 lenguan farrez egondu giñan  
 begira dama bateri:  
 ispilluaren aurrian ai zan  
 bere sonbrakin dantzari.
- 5/ Bezperatikan egoten dira  
 pentsamentuan jarrita:  
 biyar konprara juango dirala  
 gona berriya jantzita;  
 sukalde dana lajatzen dute  
 azpikoz gora jirata,  
 esanaz: «Banijua, señora,  
 piperrak falta dira-ta».
- 6/ Bere señorak on ustietan  
 plazara zuen bialdu,  
 gutxieneko iru orduan  
 etxera etzan azaldu.  
 Esaten ziyon: «Emakumia,  
 oso zabilta berandu!»  
 «Etxekuandria, merke nai nun ta  
 ezin nitzaden konpondu!»

7/ Lengo batian damatxo batez  
ikusiya nago fiesta:  
«¿Cuánto vale un poco babarrun?»  
andre bateri galdezka.  
Basarritarrak «Tres erriales»  
eman ziyon erespuesta.  
Neskatxak berriz: «En este año  
mucho garistiya está».

8/ Ondo jantzita jai-atsaldetan  
juntatzen dira parezka:  
«Goizian asko sisatu al den?»  
danak alkarri galdezka.  
Batek lau kuarto, bestiak zortzi,  
irugarrenak bi pezta;  
oiek aitze'itun bersolariya  
aparte ibiltzen ezta.

9/ San Juan egunaz Ernani'n nitzan  
pasatzen arratsalde bat,  
musika ari zun ta dantzarako  
artu nun dama gazte bat;  
akabatuta billatu nuen  
lurrian zaku txiki bat,  
pentsatu nuen egin nuela  
neretzat fortun onen bat.

10/ Txoko batian asi nitzaden  
zaku txikiya askatzen,  
nere pozakin ortzakin nizkan  
puska batzuek ekentzen;  
gero asi zan barrenan zitun  
materialak azaltzen,  
egun guziko lana artu nun  
ango trapaak kontatzen.

11/ «Portamoned'au zuria al da?»  
gizon bati niyon galda;  
erantzun ziran: «Orren jabia  
mantal zuriyakin juan da». (1)  
Suerti ori ez egitia  
guretzat askoz obe da,  
probintzi ontan ezta pasatzen  
zaku artako moneda.

12/ Arropa ere gastatzen dute  
aberats baten graduan,  
«*Sigueme, pollo*» deitzen diyoten  
zinta batekin lepuan;  
illiak ere altu jarririk  
gaztelu baten moduan,  
orlako gauza farragarririk  
ezta izango munduan.

---

(1) Bertso-paperak: *maltal*.

13/ Kulpik gabeko dama gaztiak,  
ez gero punturik artu:  
mandatuetâ ateratzian  
denbora gutxi pasatu,  
zeren nagusi etxequandriaz  
al dan ondona kunplitu,  
modu onetan serbitzen dunak  
onra onak jasoko ditu.

14/ Dama gaztiak, despeditutzen  
asi biar det onradu:  
ariyo eta beste bat arte,  
notizi onak bialdu!  
Paper bakoitza bosna zentimo  
egiten dirade saldu,  
Karnabal onak pasatuzeko  
gaztiak zerbait biar du.

## BERTSO BERRIAK

### FRANZISKO PEREZ'EK JARRIAK

Urrengo sail au, moldiztegi-izenik gabeko bertso-paper batetik degu. Azpeitia'n jaso genduan, Fidel Uria apaiz jauna zanaren papere-tatik.

Izenburuak, egillearen izen-deiturak ematen dizkigu. Baiñan Franzisko Perez orren aztarrenik ez degu, orain arte beintzat, iñon ere arkitu.

Castilla'ko arrobi batean lanean ari diran zortzi lagunek, gizon bizar-gorri baten konsejuz, lan ura utzi eta sal-erosian asteko erabakia artzen dute. Andaluzia'n, piper, baratzuri eta azeitunaz osatzen dira; «oingo adelantua» dan auts bat ere artzen dute; Naparroa'n, berriz, ozpiña erosten. Orrela ornituta, Gipuzkoa'ra sartzen dira, eta kaleak deadarrez pasa ere bai, baiñan ez dute patrikarik betetzen...

Aitatuko auts ori, «Paris'ko esposiziuari da premiatua» esaten digu bederatzigarren bertsoak. Paperak ez du urterik esaten eta ortik atera ote genezake? Joan dan mendean eta paper onek eskatzen duan garaiean, esposizio auek egin ziran Paris'en: 1855, 1867, 1878

eta 1889'an. Azken urte onetan altxa zuten Eiffel'ko torre famatua.

Bertso auek, 1976'eko *Oarso* urtekarian ere argitaratu genituan eta 1878'eko esposizioa izango ote zan esaten genduan. Baiñan, orain pentsatzen degunez, geroagokoak izango dira. Bertso auek amarna zentimo balio zuten, azken bertsoan esaten danez, eta 1891'eko beste batzuek —oiek ere liburu onetan dira—, bosna zentimo balio zuten. Orregatik, bearbada, 1889'eko esposizioa aitatuko dute.

1/ Bertso berri batzuek  
bear ditut jarri,  
jendiak jakin dezan  
ondo gure berri;  
erakutsi nai diot  
ez dakieneri  
nola Castilla'tikan  
geraden etorri.

2/ Castilla'n ari giñan  
guziok lanian,  
pikatzoi ta palenka  
arturik aldian;  
gustora ari giñan  
kantera batian,  
gizon batek engañatu  
giñuzen artian.

3/ Gizon bat etorri zan  
bizar gorriakin,  
traje ederra eta  
relojuarekin,  
illia orraztua,  
sonbreruarekin,  
ta gañera eskuan  
bastoi ederrakin.

4/ Amistade aundiyan  
itzegiten asi:  
«Lanteri ori nuan  
aspaldi ikasi;  
nekiak aspertuta  
juan nintzan igasi,  
Gipuzkoa'ra joanda  
piper saltzen asi».

5/ Aren esan guztia  
genduan sinistu,  
gutziz egoki zala  
danori iruritu;  
zortzi lagun giñaden  
batera unitu,  
esanaz: «Geuk e ortan  
biar degu aberastu».

6/ Gu zortzi lagun giñan  
juntau alkarrekin,  
eta preparatutzen  
laster giñon ekin;  
tratua egiñikan  
guk bi astorekin,  
baita ere baratzuri  
eta piparrakin.

7/ Asto, piper, batzuri  
giñuzen guk artu,  
komerzio txikiya  
genduela pensatu;  
Sevilla'ra juanda  
azeitunak artu,  
modu onetan giñan  
zerbait konpletatu.

8/ Gauza abek artuta  
biajian asi,  
Cádiz'en geldituak  
giñan lendabizi;  
auts batzuek giñuzen  
saldutzen ikusi,  
zer klase zan jakinda  
giñuzen erosi.



- 9/ Auts au ekarri degu  
 oingo adelantua,  
 ezin neurtu liteke  
 onen meritua;  
 Paris'ko exposizian  
 da premiyatua,  
 prueban seireun milla  
 tximutx ildakua.
- 10/ Cádiz'en lo eginda  
 giñan abiatu,  
 oraindikan ez giñan  
 ondo konpletatu;  
 urrena Naparrua'n  
 giñaden gelditu,  
 an bi barril binagre  
 giñuzen guk artu.
- 11/ Konpra abek egin da  
 Gipuzkoa aldera  
 abiyatu giñaden  
 aberastutzera;  
 arteraño egiñak  
 naiko gora-bera,  
 Tolosa'n egiñ genduan  
 lenengo sarrera.

12/ Tolosa'ko errira  
giñan allegatu,  
kale danak diarka  
giñuzen pasatu;  
gure komerziua  
osorik gelditu,  
iru errial besterik  
ez giñuzen artu.

13/ Geroz erri askotan  
egin degu jira,  
baña ala ere oraindik  
osorikan dira;  
esperantzaz beterik  
gatoz Azpeiti'ra,  
ai zer konsuelua  
salduko balira!

14/ Desesperatu ere  
egin degu iya,  
jateko ezin egiñ,  
au da komeriya;  
pipar-pusketa bana  
gure janariya,  
gosiak gabiltz eta  
galdu gera iya.

15/ Despeditu biar det  
oraiñguarekiñ,  
pipar saltzen diyogun  
gogotikan egiñ;  
iñork nai baldiñ badu  
gure berri jakiñ,  
artu beza papela  
amar zentimokiñ.

## ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. R. Artola: Sagardoaren Graziya (*Aitua*).
2. M. Soroa: Gabon, Au ostatubal, Anton Kaiku. (*Aitua*).
3. F. Apalategi: Euskal mutillak armetan, I. (*Aitua*).
4. Pepe Artola: Ustez laguna detan. (*Aitua*).
5. P. M. Urruzuno: Euskalerritik zerura. (*Aitua*).
6. T. Alzaga: Ramuntxo. (*Aitua*).
7. R. Azkarate: Galtzaundi. (*Aitua*).
8. A. Apaolaza: Patxiko Txerren. (*Aitua*).
9. B. Iraola: Oroitzak. (*Aitua*).
10. Errege eguneko bertso sayoa. (*Aitua*).
11. P. Larzabal: Bordaxuri. (*Aitua*).
12. Bilintx: Bertso ta lan guziak. (*Aitua*).
13. M. Izeta: Dirua galgarri. (*Aitua*).
14. P. Larzabal: Iru ziren. (*Aitua*).
15. Ezkontza galdutako bertsoak, I. (*Aitua*).
16. A. M.<sup>a</sup> Zabala: Gabon gau bat. (*Aitua*).
17. A. M.<sup>a</sup> Labayen: Malentxo alargun! (*Aitua*).
- 18-19. A. Zavala: Txirrita. (*Aitua*).
20. F. Goñi: Lurdesko gertaerak. (*Aitua*).
21. P. Larzabal: Herriko bozak. (*Aitua*).
22. Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962). (*Aitua*).
23. Aizkolariak. (*Aitua*).
24. F. Imaz: Bertso guziak. (*Aitua*).
25. A. P. Iturriaga: Jolasak. (*Aitua*).
26. A. M.<sup>a</sup> Zabala, A. Larraitz, Mir: Periyaren zala-partak.
27. Azpeitiko Premiyoaren bertsoak. (*Aitua*).
28. B. A. Mogel: Ipui onak. (*Aitua*).
29. T. Alzaga: Burruntziya. (*Aitua*).
30. G. Anduaga: Egunsentiko txoria. (*Aitua*).
31. M. Soroa: Baratzan. (*Aitua*).
32. M. Elicegui, A. Zavala: Pello Errotaren bizitza. (*Aitua*).
33. M. Elizegui, A. Zavala: Pello Errotak jarritako bertsoak.


34. P. Larzabal: Senpere-n gertatua. (*Aitua*).
- 35-36. J. V. de Echagaray: Festara.
37. A. Cardaberaz: Euskeraren berri onak. (*Aitua*).
38. S. Salaverria: Neronek tirako nizkin. (*Aitua*).
39. Bertsolariak: Amar urteko bertso-paperak. (*Aitua*).
- 40-41. J. R. Zubillaga: Lardasketa. (*Aitua*).
42. Uztapide: Noizbait. (*Aitua*).
43. Bertsolari-txapelketa. (1-I-1965). (*Aitua*).
44. P. Larzabal: Hilla esposatu. (*Aitua*).
- 45-46. J. M. Satrustegui: Bordel bertsolaria. (*Aitua*).
47. P. M. Urruzuno: Iru ziri. (*Aitua*).
48. P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe: Teatro zaarra. (*Aitua*).
- 49-50. A. Zavala: Pello Errotaren itzala. (*Aitua*).
51. P. M. Urruzuno: Ur-zale baten ipuiak. (*Aitua*).
- 52-53. G. Anduaga: Bertso-bilduma.
54. A. Zavala: Pernando Amezetarra bertsolaria. (*Aitua*).
55. Basarri: Laugarren txinpartak. (*Aitua*).
56. A. Zavala: Udarregi bertsolaria. (*Aitua*).
- 57-58. C. Beobide: Asis'ko Lorea. (*Aitua*).
59. A. Zavala: Axentxio Txanka bertsolaria.
60. A. Zavala: Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari. (*Aitua*).
61. A. Zavala: Gaztelu bertsolaria.
62. A. Zavala: Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria.
- 63-64. A. Zavala: Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak.
65. J. M. Satrustegui: Luzaide'ko kantiak. (*Aitua*).
66. A. Zavala: Iru bertsolari. (*Aitua*).
67. Bertsolari-txapelketa (11-VI-1967). (*Aitua*).
- 68-69-70. A. Zavala: Alzo'ko Imaz bertsolaria.
- 71-72. A. Iturriaga: Ipuiak.
73. A. Zavala: Iru anai bertsolari. (*Aitua*).
- 74-75. A. Zavala: Errenteria'ko bertsolari zaarrak.
76. A. Zavala: Alza'ko bertsolari zaarrak.
- 77-78. A. Zavala: Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsoak. (*Aitua*).
- 79-80-81. A. Zavala: Lexo bertsolaria.
82. A. Zavala: Juan Maria Zubizarreta bertsolaria. (*Aitua*).
83. A. Zavala: Motza, Zulaika ta Ugalde bertsolariak. (*Aitua*).
84. M. Matxain: Uste gabea.
85. Xalbador: Ezin bertzean. (*Aitua*).
- 86-87. A. Zavala: F. Iturzaeta bertsolaria.

- 88-89-90. A. *Zavala*: Xepelar bertsolaria. (*Aitua*)
91. A. *Zavala*: Txapel bertsolaria. (*Aitua*).
92. I. *Alkain*. — A. *Zavala*: Alkain aita-semeak.
93. A. *Zavala*: Zubeltzu ta Saikola bertsolariak.
94. A. *Zavala*: Atano ta Estrada bertsolariak. (*Aitua*).
- 95-96. A. *Zavala*: Azkoitia'ko zenbait bertsolari.
97. A. *Zavala*: Bidasoa aldeko bost bertsolari.
- 98-99. *Inozentzio Olea*: Goierriko lorak.
100. *Manuel Lasarte*: Bertso-mordoxka. (*Aitua*).
- 101-102. A. *Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*).
- 103-104. A. *Zavala*: Txirritaren bertsoak. II. (*Aitua*).
105. *Jose Inazio Etxeberria*: Mendi-gañetik.
106. A. *Zavala*: Pastor Izuela. — Ezkioko ta Segurako itxuak.
107. A. *Zavala*: Zepai bertsolaria. (*Aitua*).
108. *Mattin*: Ahal dena. (*Aitua*).
- 109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsularia.
111. *Bertsolariak*: Xepelar-saria, 1972. (*Aitua*).
112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak.
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten ziria.
114. A. *Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. A. *Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak.
116. A. *Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari.
- 117-118. *Balendin Enbeita*: Nere apurra.
119. A. *Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari.
- 120-121-122. A. *Zavala*: Mendaro Txirristaka.
- 123-124-125. A. *Zavala*: Zapirain anaiak.
126. A. *Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.
127. *M. Arozamena*: Nere aldia.
128. A. *Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.
129. A. *Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).
130. A. *Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).
131. A. *Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).
132. A. *Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).
133. A. *Zavala*: Arrantzaleen bizitza.
134. *J. M. Arrizabalo*, A. *Zavala*: Baso-mutillak.
135. A. *Zavala*: Jaiok bizi nai.



1051006

G-128/19



AUSPOA  
LIBURUTEGIA

G-1